

## DATORRENA

Biharkorako hiru motibo eta gertu-gertuko hiru aurrekari RAMON SOLA ➤ 11

2019ko azaroaren 9a | XIII. urtea • 645. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## ARALAR; DUDAN GUZTIA, NAIZENA

➤ 22 Joseba URRETABIZKAIA

**AEBetako Teherango enbaxadaren aurkako eraso 40 urte igarota** 04

**Azkenean, historiaren mendekua iritsi da Txilera** 07

**Dengearen epidemia Erdialdeko Amerikan eta Hego-ekialdeko Asian, indarrez** 08

**Espazioa denbora bilakatzen den bidaia Aralarren barrena** 12

**KLK trebakuntza zikloa** 18

**E.lkarrizketa: Sebastiana Par** 22

**Sarean** 26

**In fraganti: Museo del Organo jatetxea** 28

**Juantxo Egañaren behatzulotik** 31



## SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Espainiar blokeoaz eta zabal daitekeen joko politikoaz
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Hiriaren zaintza
- 11 **Ramon Sola:** Biharkorako hiru motibo eta gertu-gertuko hiru aurrekari
- 16 **EXPRAI**
- 17 **Oihane Larretxea de la Granja:** Amaitu da txokolatezko palmeren garaia
- 17 **Koldo Sagasti:** Konpainia arriskutsuak
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Aterki berriarena
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Zapla!
- 30 **Itsaso Rodriguez:** Roboten erabilera Fukushima istripu nuklearrean



{ datorrena } Iñaki Soto

# Espainiar blokeoaz eta zabal daitekeen joko politikoaz

**N**ik neuk zalantzak izan nituen. Ikuspuntu arrazional batetik, honelako jokaldi bat eginez gero, besteek ezagutzen ez duten daturen bat izan behar duzu. Badirudi ezetz, ordea. Pedro Sanchez biharko hauteskundeak deitzen nahastu dela esatea gutxi esatea da. Errepikapena harrigarria bazen, PSOEko buruak kanpainan erakutsi duen trebezia falta, idiozia ez esateagatik, are harrigarriagoa izan da. Zantzu guztien arabera, eskura zituen datuak okerrak ziren eta, ondorioz, baita egin zituen planak antzuak ere.

## BLOKEOA BERDIN, BLOKEAK ARE ETA OKERRAGO

Kasurik onenean, emaitzak errepikatu egingo dira, gutxi gorabehera. Alegia, Sanchezek hobetsi zuen blokeoa mantendu egingo da. Kasu horretan, gainera, bere posizio politikoa ahulduta aterako da. Berak zentralitatea bilatzen zuen, baina hauteskundeetatik aterako diren bloke guztietan PSOE ahulduta geratzen da.

Ezkerraren ikuspuntutik, portzentajea maila mantentzen badu ere –beti bezala, depende zeri deitzen zaion “ezkerra”–, sinesgarritasun falta nabarmena izango du. Baita indar gutxiago ere. Berak nahita, hauteskunde errepikapenaren helburua ezkerraren mandatu demokratikoa ahultzea baitzen.

*Establishment*-aren blokean, PPrekiko galtzaile aterako da eta Ciudadanosekin bilatzen zuen bestelako harremana pikutara joan da. Izan ere, Ciudadanosen porrotak eskuinera transferituko ditu bere botoak, PP eta VOXera, hain zuzen ere. Espainiar asmo liberalek deribatu falangista dute beti atzean. Ondorioz, unionismoaren eta ordenaren blokean, PSOEren aukerak ere mugatuagoak dira orain, hor agenda ultraeskuinak ezartzen baitu.

Koalizio handiaren aukera benetan zaila iruditzen zait. Baita PPren abstentzioa ere, azken horrek emaitza txukunak edo sikiera dezenteak ateratzen baldin baditu.

Hemengo eta hango indar independentistak giltza izateak udaberrian baino aukera errealagoa dirudi orain. Matematiketz ari naiz. Izan ere, orain dena konplikatuago da. Berriro ere, PSOEren posizioa hor ahulduta egongo da: gutxiago eskaintzeko, gehiagoren artean banatzeko, kontraesankorrako. Edonola ere, bozek prezioa izango dute, eta garestiagoa. Alor horretan, euskal eta kataluniar kultura politikoen arteko interakzioak interesgarriak izango dira. Izan daitezela oparoak ere, arren.

## ZERI BEGIRATU, GUREA BISTAZ GALDU GABE

Kataluniari begira, espainiar komunikabideek alderdien arteko liskarretan jarriko dute fokua, baina independentistek %50eko langa gainditu dezakete, lehen-dabizikoz. Emaitzek arnasa eman diezaiokete estrategiarik ez baina indar bizia duen mugimendu horri. Bide batez, BNGren emaitzak ere interesgarriak iruditzen zaizkit. Gutxi begiratzen diogu Galiziar, gutxiegi.

Euskal Herriko emaitzak garrantzitsuak izango dira, jakina. Emaitzen eragina ez da Madrilera mugatuko, inondik inora. Nafarroako agintaldian eragina izango du –adibidez, Bel Pozuetak eserlekua lortzea garrantzitsua litzateke–, baita datorren urteko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hauteskundeetan ere. Hauteskundeek joerak erakutsiko dituzte, alderdientzat garrantzitsuak direnak, baina batez ere joko politikorako aukerak zabaldu ditzakete. Euskal agendak gorde beste urte baterako, baina euskal alternatibek indarra hartu dezakete bihurtik aurrera. •

Euskal Herriko emaitzen eragina ez da Madrilera mugatuko, inondik inora. Nafarroako agintaldian eragina izango du, baita datorren urteko Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hauteskundeetan ere

# 444 EGUN 40 URTE DIRENEAN

AEBetako Teherango enbaxadaren kontrako erasoak bi herrialdeen arteko harremanak gaurdaino bahitu ditu

**B**elaunaldi oso bat markatu zuen 1979ko azaroaren 4ak, AEBetan zein Iranen, luzarorako, betiko ez bada. Khomeini aiatolaren aldeko ikasle talde batek AEBetako Teherango enbaxadaren, “espioen habia” deitzen zuten, murruiak eta txarrantzak gainditu eta 52 diplomatiko, soldadu eta espia estatubatuar bahitu zituen. Jarraian, begiak bendeikin estalita eta eskuak lotuta zituztela, mundu osoko komunikabideen aurrean erakutsi zituzten, 444 egun iraun zituen bahiketa bati, 40 urte irauten dituen “gerra hotz” bati, hasiera emanez. Sentsibilibitateak sutuz, bi herrialdeen arteko etsaitasun eta mendeku politika amaigabea are gehiago indartu zen.

1979ko Iraultza Islamikoak Irango Estatua goitik behera

 **IRANGO BAHITUEN KRISIA** / Mikel Zubimendi Berastegi

«Irango bahituen krisiak» 40 urte bete ditu jada. Xah diktadorearen agintaldia ekarri zuen estatu kolpea AEBetako Teherango enbaxadan prestatu zen eta xah eroarazi zuen iraultza islamikoaren beroan hura asaltatu zuen ikasle talde batek, 444 egunez 52 diplomatiko bahituz. Krisi hark, baina, ez du amaierarik ezagutu.

aldatu zuen. Monarkia izatetik islamiar errepublika izatera igaro zen Iran, eta, berehala, iraultza kulturala etorri zen, hau da, Mendebaldetik zeto- rren eragin ez-islamikoa Irandik ezabatzeke ahalegina. Iraultzak, estatubatuarrek Teherango enbaxadatik bertatik 26 urte lehenago zuzendu zuten estatu kolpe baten eskutik boterean jarri zuten Moham-

Irandar ikasle iraultzaileak bahitutako estatubatuar diplomatiko bat, begiak benda batekin estalita eta eskuak lotuta dituela, munduko telebisten aurrean erakusten. GAUR8

mad Reza Pahlevi monarka autoritarioa, Irango xah, kanporatu zuen.

AEBek sustatuko 1953ko estatu kolpe hark, Mohammad Mossadegh lehen ministroak gidatutako gobernu demokratiko aurrerakoa boteretik kanporatu zuen, Iranera diktadura odoltsua eramanez. Gertakizunen horien arteko loturak eta Irango bahituen krisiaren tes-


tingurua ulertzeak ez ditu agian bi herrien arteko zauri zaharrak sendatuko, baina lagun dezake. Izan ere, AEBetako CIA Inteligentzia Agentzia Zentralak Teherango enbaxadatik zuzendu zuen estatu kolpe hura eredu bezala erabili zuten gerora estatubatuarrek, adibidez, 1954ko Guatemalako estatu kolpea edo Salvador Allenderen Gobernuarekin bukatu zuen Txileko 1973koa bul-tzatzeke.

## EGINDAKOAZ HARRO

Denboran izoztua balego bezala, AEBetako Teherango enbaxada monumentu publikoa da egun. Urteotan, Irango buruzagiek ez dute sekula deitoratu ekintza hura. Aitzitik, egindakoaz oso harro, ospakizun nazional bilakatu dute.

Bahitutako 52 lagunen artean, hamahiru afroamerikar eta emakume, espioitza lane-tan aritzen ez zirela baieztatu ondoren, askatu egin zituzten. Beste sei lagunek eraso hasi bezain pronto lortu zuten ihes egitea; Kanadako enbaxadorearen etxean aterpetu ziren. Hilabete batzuk geroago, CIAren operazio baten eskutik atera zituzten Irandik –Ben Affleck aktore ezagunak zuzendu eta antzeztu zuen “Argo” pelikula sonatuan kontatzen da gertatutakoa–. Ia urte bat geroago, gaixorik zen beste lagun bat askatu zuten.

Bahiketari amaiera emateko ikasle iraultzaileek hiru eskaera egin zituzten. Denetan garrantzitsuena, herrialdetik ihes egin zuen Mohammad Reza Pahlevi xah Iranera estraditatzeari, epaitua izan zedin. Eta beste biak, AEBek Irango



barne arazoetan muturra sartzeari uko egitea eta enbargatuta zituzten ondasun irandarrek itzultzea.

AEBetako presidente zen Jimmy Carterrek uko egin zien eskakizunei. Eta aukera militarra alboratuz, Iranen gaineko presioa areagotzea erabaki zuen. Banku estatubatuarrek zituzten ondasun irandar guztiak izoztea agindu zuen, Teheranekin harreman diplomatiko guztiak haustea –gaurdaino daude hautsita– eta erabateko enbargo komertziala –egun ere indarrean da–. Bizitzaren paradoxak zer diren! Erabakioekin bere patua, bere heriotza politikoa, idatzi zuen: krisiak eragin zion higadurak berriz hautatua izateko aukera guztiak zapuztu zizkion.



#### KOMMOZIO PUBLIKOA

Egun batzuetako ikasle protesta omen zena, Khomeini aiato-laren erabakiz, estatu operazio bilakatu zen. Horrek, AEBak urte bat baino gehiagoz paralizatu zituen krisia ekarri zuen. Carterrek indar militarra erabiltzearen kontrako erabakia hartu zuen unetik beretik hasi zen haren kontrako zaparrada.

AEBetako armadaren iritzia- ren kontra erabaki omen zuen Carterrek aukera militarra alboratzea eta kostu politiko ikaragarria eragin zion. Estatu- batuarrek begiak bendatuta eta eskuak lotuta zituztela telebistetan etengabe ateratzen ziren, kommozio publiko izugarria eraginez, eta, horren aurrean, herrialdeko presidentea koldar hutsa omen zen. Horrela zioten behintzat komunikabideek gau eta egun.

1980ko apirilean, AEBetako armadaren indar berezien operazio batekin bahituak askatzen saiatu ziren. Baina porrota itzela izan zen, giroa are

gehiago gaiztotzea baino lortu ez zuena. “Arranoaren atzaparra” izena eman zioten operazio hartan parte hartu zuten zortzi helikopteroetako batek, Irango hego-mendebaldeko basamortu batean lur hartu ondoren erretiratzen ari zela, istripu larria izan zuen. Helikopteroei babesa ematen zien AEBetako gerra-hegazkin baten kontra talka egin eta zortzi soldadu hil ziren. Giroa are gehiago korapilatzeke, AEBetako haserre popularra are gehiago sutzeke, hildako soldaduon gorpuak Irango telebistan erakutsi zituzten.

1980ko uztaillean hil zen xahizandako Mohammad Reza Pahlevi. Eta bi hilabete geroago, AEBek armatutako Saddam Husseinen Irakeko indarrek Iran inbaditu zuten. Bi gertakariok bahituen krisiari soluzio bat emateko interesa handitu zuten Teheranen. Eta handik gutxira, Aljeria bitartekari zela, akordio batera iritsi

444 egun bahituta egon ondoren, diplomatiko estatubatuarrei heroiak bailiran egin zieten ongiatorria AEBetan.  
GAUR8

ziren bi aldeak: bahituak askatu zituen Iranek bere ondasunen desblokeoaren eta AEBek herrialdean muturra sartzeari uko egiteko bermeen truke. Teherandik Alemaniara eraman zituzten bahituak, eta, handik, heroiak bailiran egin dako ongiatorri erraldoi baten eskutik, Washingtonera iritsi ziren.

#### «BAHITUEN NEGOZIOA»

Bahiketaren 444 egun haiek AEBen eta Iranen arteko etsaitasuna gaurdaino luzatu dute.

**Presioa areagotzea erabaki zuen Jimmy Carter AEBetako presidenteak. Bere heriotza politikoa idatzi zuen horrela: jasandako higadurak berriz hautatua izateko aukera denak zapuztu zizkion**

**Begiak bendaturik eta eskuak lotuta erakutsi zituzten diplomatikoak munduko telebistetan. Are, ospakizun nazional bilakatu zen bahiketa eguna. Umiliazio latza izan zen AEBentzat**

Ikasleen bat-bateko ekintza hura babestu zuen Khomeini aiato-lak, Irango iraultzaren lider gorenak. CBS kate estatu- batuarri emandako elkarrizketa batean, «35 milioi kideko herri baten ekintza» bezala justifikatu zuen. Diplomati- koak, baina, begiak bendaturik eta eskuak lotuta erakutsi zituzten telebistetan eta AEBetan umiliazio bezala sentitu zen. Are, ongi prestaturiko eszenaratze batekin, Irango ospakizun nazional egin zenetik.

“Irango bahituen krisia” deiturikoa AEBentzat islam erradikalarekin lehen aurrez aurrekoa, lehen talka, izan zen. 40 urtez luzatu den “gerra hotz” bati hasiera eman zion, tartean ia hamarkada bat iraun zuen Iraken eta Iranen arteko gerra basatia eta guzti.

Azpmarratu behar da, baina, urte luzeotan beti egon direla bahituak bi parteen aldetik, nolabaiteko “bahiketen negozio” bat antolatu dela. Eta

ofizialki harreman diplomatiko zuzenik ez duten arren bi herrialdeek, beti egon dira bata zein bestea bahitutako beren herritarren askatasuna zeharka negoziatzen.

Khomeiniren ordezeko eta Irango egungo lider den Ali Khamenei aiatolak, oraindik ere AEBak “Satan Handia” bezala ikusten ditu. Trumpek akordio nuklearra hautsi eta Iranen kontrako erabateko presioaren bideari ekin zionetik, Ali Khameneik AEBekin negoziatzea debekatu du.

Oraindik ere, Irak eta Iranen arteko gerran AEBek Saddam Husseini eman zizkion arma kimikoen ondorioak pairatzen dituzte irandarrek. Erabateko enbargo eta zigor ekonomiko-en ondorioz, gainera, sufri-mendu asko metatzen ari dira. Eta ez dirudi mendeku eta kontramendeku zikloaren amaiera etorkizun hurbilean amaituko denik. Hori baino posibleago litzateke, tentsioa puri-purian den honetan, istripu baten ondorioz agian, eskualdean gerra lehertzea.

**FIDAGARRITASUN EZA**

Irango herria oso kultua da. Iragan oparoa du eta ondo eza-gutzen du bere historia. AEBek zuzendutako estatu kolpeen esperientzia traumatikoa haragi propioan bizi izan du. Aurrekari horiekin ez da harritze-koa 1979an xah aldarrikatu zen autokratari AEBetan asiloa eman ziotenean, 1953ko estatu kolpearen errepikapena zeto-rra pentsatzea.

Minbiziaren aurkako trata-mendua jarraitzeko aitzakiare-kin xah AEBetan aterpetu eta bi astera asaltatu zuten ikasle-ek enbaxada. Ez zen inoren mandatupean egindako ekin-tza izan, independentzia era-kusten zuen ia bat-bateko



Bahiketaren urteurrena ospakizun nazional bilakatu da Iranen eta urtero-urtero AEBen kontrako etsaitasuna erakusten duten mobilizazio erraldoiak egiten dituzte. GAUR8

**AEBek islam erradikalarekin izan zuten lehendabiziko aurrez aurrekoa, lehen talka, izan zen «Irango bahituen krisia». 40 urtez luzatu den «gerra hotz» baten hasiera**

**«Satan Handia» lez ikusten ditu Ali Khamenei aiatolak AEBak. Trumpek akordio nuklearra hautsi eta erabateko presioaren bideari ekin zionetik, AEBekin negoziatzea debekatu du**

ekintza baizik. Baina baita 1953ko estatu kolpea berriz eman ez zedin neurri preben-tiboa ere.

Azpimarratzekoa da, bestalde, 1953. urtea baino lehen irandarrek sinpatiarekin ikus-ten zituztela estatubatuarrak, nolabait, botere kolonialaren aurrean independentzia lortu zuten gerlari gisa. Iranek bere etsaitasun partikularra erru-siar eta britainiarrentzat gor-detzen zuen, bi estatuok he-rrialdearekiko izandako jokabide koloniala gogoan. 1953tik aurrera, baina, ulerga-rria denez, irandarrek ez ziren jada AEBez fio. Eta bistakoa da egun ere ez direla batere fio.

**BESTE ETORKIZUN BATEN AUKERA**

Historia gatazkatsu eta tragiko honen gainera, edo azpitik, Iranek eta AEBek aukera bat eman zioten elkarri “Irango Akordio Nuklearra” deiturikoa hitzartu zutenean. Trumpek hankaz gora bota ondoren, baina, beste behin ere, AEBak ez direla fidagarriak pentsa-tzera lerratu dira irandarrek.

Akordioak, bere inperfekzio eta hobetu beharreko arlo guz-tiekin, gauza asko erakutsi zi-tuen: nazioarteko kooperazio-rako eredu bat ezarri zuen, arma nuklearrak ez ugaritzeko bidea eta aurkarien arteko ne-goziazioak nola funtzionatu dezakeen inguruko adibidea.

Irandarrek eta estatubatua-rrek iraganeko ekipajea atzean uzteko saiakera izan zen akor-dioa, etorkizuna beste modu batez lantzeko aukera. Amets hutsala dirudi uneotan, baina, denon zauriak gogoratuz eta onartuz, ulermen eta bakerako esperantza badago oraindik, eta konpromisoaren aldeko bi-dera bueltatzetik etorriko da, diplomaziaren eta etsaitasu-naren arteko orekatik.

## IKUSMIRA

# AZKENEAN, HISTORIAREN MENDEKUA IRITSI DA TXILERA



Javier TORRES - Martin BERNETTI | AFP

Salvador Allenderen gobernu sozialistaren aurkako 1973ko estatu kolpe militarren ostean, Txile neoliberalismoaren laborategi bihurtu zuen Chicagoko Eskolak. Augusto Pinochet diktadorea etxean zendu zen, azkenean lasai-lasai, eta, 1990. urtean, «demokrazia» iritsi omen zen herrialdera. Ordutik urriaren 18ra arte ikasleak ziren egoera sozio-ekonomiko itogarria salatzen behin edo behin kalera irteten zirenak. Orain, ordea, murrizketen eraginak erdiko klasearen etorkizuna kinka larrian jarri duen honetan, sutan dago herrialdea. Hogei hildako, ehunka zauritu (horietako askok begia galdu dute) eta milaka atxiloturen ondoren ere, protestek ez dute etenik eta Santiago hiriburuko auzo aberatsetara iritsi dira jada. Sebastian Piñera presidentek bereari eusten dio, ministro batzuk aldatzea nahikoa delakoan. Oraindik ez da konturatu luzaro itxarondako mendekua gainean duela. Konturatu al da harrituta airean dagoen kartutxoari begira dagoen Txileko polizia hori? **David Lazkanoiturburu**

# DENGEA ZIZTAKA

## Erdialdeko Amerika eta Hego-ekialdeko Asia indarrez erasaten ari den epidemia

📁 OSASUNA / Ruben Pascual

**D**engearen epidemiak hartu duen tamainak kezkatuta ditu adituak.

Osasunaren Erakunde Panamerikarrak (OPS, gaztelerazko sigletan) aurreikusten duenez, Erdialdeko Amerikan ezingo dute hori geldiarazi epe laburrean, nahiz eta eskualdeko gobernuek aurre egiteko neurriak hartu dituzten. Irailaren amaierara arte egin zituzten kalkuluen arabera, aurten eskualdean 211 lagun hil ditu dagoeneko gaixotasunak, eta 240.000 baino gehiago infektatu dira.

Amerikako herrialde ugarietan gaixotasun endemikoa da dengea, baina hartu duen larritasunak eta kaltetuen kopuruak ustekabean harrapatu ditu adituak. Besteak beste, zona horretan «landaredia oparoa eta bero handia» dutelako izan du halako eragina izurriak. Horrez gain, bertako ur eskasia dela-eta herritar askok ura gorde behar izaten du, eta horrek *Aedes aegypti* eltxo emeek kutsatzen duten dengea hedatzea laguntzen du. Eltxo horrek zika eta chikungunya gaixotasunak ere kutsatzen ditu.

Nolanahi ere, arestian aipatutakoez gain, faktore asko daude dengearen atzean; horien artean, klima aldaketa, osasun zerbitzu eskasa eta herritarrek maiz izaten duten kontzientzia falta. Agintari askok errazera jotzen du sarritan, erantzukizuna herritarren bizkar utziz –alegia, gertatutakoa horien ekimen faltari leporatuz–, baina tamaina honetako epidemia bat kontrolatuko bada, oso garrantzitsua da inguruneak zaindu eta eltxoaren ugaltzea geldiaraztea. Bide ho-

«*Aedes aegypti*» eltxo emeek transmititzen dute dengea. Ehunka mila pertsona infektatu eta ehunka hil ditu aurten Erdialdeko Amerikan (Honduras eta Nikaraguan bereziki) eta Hego-ekialdeko Asian (Filipinak, Vietnam, Malaysia, Kanbodia...). Okerrena oraindik etortzear egon litekeela ohartarazi dute adituek.

rretan, bada, ezinbestekoa da prebentzio neurrien inguruko informaziorako sarbidea bermatzea.

«Haurren oinarrizko hezkuntzatik egin beharreko lan oso bat da, eta gehiago itxaron gabe hasi beharra dago», esan du OPSk Hondurasen duen ordezkari Piedad Huertasek. Hel-duen kontzientziazioan ere as-

koz lan gehiago egin beharko litzatekeela uste du.

Horregatik, osasun arloko ordezkari eta agintari ugari ari dira behin eta berriz oso antzeko mezuak igortzen. Ezin dela guardia jaitsi. Eltxoen haztegiak deuseztatu beharra dagoela. Eta funtsezkoa dela, beste kontu batzuen artean, etxebizitzak garbi mantentzea.

Langile bat, Karatxi hiriko (Pakistan) etxebizitzak fumigatzen, dengearen hedapena geldiarazteko.  
AFP

Denge birusa harrapatzean, konplikazio larriak gertatzeko arrisku handiagoa dute haurrek, bereziki neskek, nahiz eta zientzialariek oraindik ez dakiten zergatik. Hori dela-eta, behin eta berriz azpimarratzen du Huertak oso garrantzitsua dela lehen zantzuak agertu orduko (sukar altua, buruko mina, gihar eta artikulazioetako mina, oka egitea eta larruazaleko erupzioak, nagusiki) medikuarenera jotzea.

Dengeak lau serotipo ditu eta infektatutako pertsonen birus mota zehatz horren aurkako antigorputzak garatzen dituzte modu naturalean.

Beste serotipo baten infekzioak sintoma larriagoak eragin ditzake, Osasunaren Erakunde Panamerikarraren (OPS) eta Osasun Mundu Erakundeak (OME) azaltzen dutenez. Bere-



ko tratamendurik ez dagoen arren, gaixotasuna garaiz atze-  
manez gero, eta asistentzia  
egokiarekin, gaitzaren hilkorta-  
sun tasa %1en azpitik manten-  
du daiteke, OMEren arabera.

**HERRIALDE KALTETUENAK, ZIFRATAN**

Latinoamerikako hainbat he-  
rrialdetan alarma gorria piztu  
da, arrazoi desberdinengatik.  
OPSren datuen arabera, Nika-  
raguan atzeman dute infekta-  
tu gehien (109.084 kasu), bai-  
na Hondurasen hilgarriagoa  
izan da 81.181 infektatuetatik  
144 hil baitira aurten, urriaren  
6an Nery Cerrato Osasun mi-  
nistrorde hondurastarrak  
eman zituen datuen arabera.

«Azken 50 urteetan herrialde-  
an izan den epidemiarik okerre-  
na da, batik bat larritasunaren  
eta hilkortasunaren dimentsioa-  
gatik», esan zuen Cerratok.

Guatemalan, 25.738 kasu eta  
44 heriotza zenbatu dituzte; eta,  
El Salvadorren, gaixotutako  
19.102 lagunetatik 6 zendu dira.

Brasilen bereziki larria da ego-  
era: abuztuaren amaierara arte,  
Osasun Ministerioak ia 1,5 mi-  
lio infektatu eta 591 heriotza  
zenbatu zituen. Beste 486 hilda-  
koren kasuak ere aztertzen ari  
dira, dengeak eragindakoak izan  
daitezkeen susmoa dutelako.  
Brasilen ohikoa da bi edo hiru  
urtetik behin gorakadak gerta-  
tzea, baina aurten euri aroa iri-  
tsi aurretik epidemiak halako

**Dengea kutsatzen duten eltxoak hiriguneetan  
ugaltzen dira, inguru bero eta hezeetan, ur  
geldia pilatzen den tokietan, bereziki. Larba  
eltxo bihurtzeko zikloa astebetekoa da**

**Oraingoz ez dago dengeari aurre egiteko  
tratamendu espezifikorik. Horregatik, mediku  
eta adituek prebentzio neurriak hartzea  
ezinbestekoa dela azpimarratzen dute**



Zika eta chikungunya ere  
kutsatzen dituen  
eltxoak, «Aedes  
aegypti»-k, zabaltzen du  
dengea.  
Mauro PIMENTEL | AFP

dimentsioa hartu izanak ikaratu  
egin ditu medikuak. «Oraindik  
ez gaude eurien aroan; orduan  
kasuak biderkatu egiten dira.  
Neguan gaude eta nahiko leho-  
rra izaten ari da. Ez genuke go-  
raldi hau eduki behar, zifra  
hauek kurbatik kanpo daude»,  
nabarmendu du Thiago Henri-

que dos Santos medikuak, Osa-  
sun Publikoan adituak.

Iritzi berekoa da Nery Cerrato,  
Hondurasko Osasun ministror-  
dea. 2020an egoerak okerrera  
egingo duela uste du.

Sao Paulo hirian ingurunea-  
ren zaintza lanetan jarduten  
duen Dulcinea Pratesek hona-

koa ohartarazi du: «Larba bat el-  
txo bihurtzeko zikloa oso labu-  
rra da, astebetekoa. Ziklo azka-  
rra eta etengabea da. Jendeak  
urez betetako ontziak ahaztuta-  
ta uzten dituenean biderkatu  
egiten dira denge kasuak».

**ASIAKO HEGO-EKIALDEA**

Aipatu ditugun Latinoameri-  
kako herrialdeez gain, dengea-  
ren epidemiak larri erasan du  
Hego-ekialdeko Asia ere. Fili-  
pinetan 1.200 hildako baino  
gehiago utzi ditu eta leporaino  
bete ditu Vietnam, Malaysia,  
Myanmar eta Kanbodiako os-  
pitaleak.

Epidemiaren larritasunaz ja-  
betzeko datu pare bat: aurten,  
670.000 pertsona infektatu  
dira eskualdean eta 1.800 bai-  
no gehiago dira hildakoak,  
Osasunaren Mundu Erakunde-  
aren eta herrialdeotako gober-  
nuen datuak uztartuz AFP  
agentziak kalkulatu duenez.

## GAITZARI AURRE EGITEKO ERREMEDIO BILA

Oraingoz ez dago dengeari aurre egiteko  
tratamendu espezifikorik. Horregatik, aditu  
eta agintariek behin eta berriz ohartarazten  
dute prebentzio neurriak hartzea oso  
garrantzitsua dela. Hala ere, hainbat  
herrialdetan zientzialariak buru-belarri ari  
dira gaixotasun infekzioso honen  
hedapenari mugak jartzen lagunduko duten  
erremedioen bila.

Egun egiten ari diren esperimientuetako  
bat bakterioekin lan egitean datza. Zehazki,  
dengea, chikungunya eta sukar horia  
kutsatzen duen eltxoari wolbachia izeneko  
bakterioa txertatzen diote, eta, hala, aipatu  
gaixotasunak gizakien artean hedatzeko  
aukera nabarmen murrizten da. Eltxoak  
naturara itzultzen direnean ugaltzen  
jarraitzen dute, baina sortzen diren intsektu  
berriek gaitzak transmititzeko ahalmen  
askoz txikiagoa daukate.

Orain arte Vientamen lortutako emaitzek  
itxaropenerako atea zabaltzen dute.

Ikertzaileek milioi erdi eltxo askatu zuten  
gainpopulatutako Vinh Luong barrutian eta,  
ordutik, atzemandako denge kasuak %86  
murriztu dira, ondoan dagoen Nha Trang  
ingurukoekin alderatuz.

Malaysia eta Singapurreko ikertzaileek ere  
wolbachia-rekin lan egiten dute, baina beste  
modu batean: eltxo arrak kutsatzen dituzte,  
kutsatu gabeko emeeekin «bateraezin»  
bihurtuz. Era horretan, arrautzak garatzea  
ekiditen dute.

Aipatu kasuez gain, badira beste  
esperientzia batzuk, adibidez Guppy  
arrainekin Kuban lantzen ari  
direna –Kolonbia, Brasil eta El Salvadorren  
ere egin dituzte probak-. Cienfuegos  
probintzian barrena, zazpi arrain multzo  
dituzte eta, diotenez, izurriari aurre egiteko  
«aukera merke eta eraginkorra» da, arrain  
bakarrak egunean 60-150 larba inguru jan  
ditzakeelako. Arrainek, gainera, ez diote  
likidoaren kalitateari eragiten.



**Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima05**  
Arkitektoa

## Hiriaren zaintza

**G**ogoan dut txikitan entzundako esaera hark nolako intriga pizten zidan barruan; kalera goizegi irteterik ez zegoela zioen, kalea ordu txikitan «jarri gabe» zegoelako. Esaldiak zain egoteko eskaera egiten zuen, sekretuan zegoen prestakuntza bat baitzegoen, den-denon aldetik errespetatu beharrekoa. Nolabait, kalea bisitagarri zegoen unera arte pazientziaz itxaroteko deialdi partekatua iradokitzen zen, denon jakinean baitzegoen itxaroteko beharra.

Adostasuneko eta isilpeko prestakuntza lanek kalearen esperientzia gertakizun garrantzitsu bilakatzen zuten. Irudikapen horrek eramaten zuen pentsatzera, kaleek egunero-egunero agertzen duten normaltasun irudiarren atzetik, hamaika pertsonaren orduaren kontrako lan itzela zegoela, bizkortasunez eta maitasunez egindakoa, gainontzekook kalea disfrutagenezan.

Heldutasunerantz bidean ohartu naiz kalearen irudikapen horrek baduela kolektibotasunean bizitzeko esperientziarekin harremanik, zehazki, komunitateagatik zaindua izatearen sentsazioarekin. Baliteke komunitatearen funtzionamendua errespetatu eta zaintzearen lehen sentsazioak izatea haiek. Baina heldutasunak ipuinaren magia puskatzen du, estatuaren antolakuntzan zaintza-lanari babes eta errespetua galdu egin zaiolako, eta, oharkabea eta itzalean eginga izanagatik, bizitzaren eginkizun garrantzitsuenetatik alboratu eta baliogabetu egiten da. Kaleak adierazten duen maitasun kolektiboaren ideiak eztanda egiten du ekonomia kapitalista eta patriarkalaren makinarian sartzen denean.

Horregatik, hirien zaintza ez da hirigintzako ardura edo buruhaustea. Areago, zailtasunak ditugu kontzeptua bera ulergarri egiteko. Bide horretan, zaintzaren lana



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

distortsionatu egiten da, garbiketa lan hutsera sinplifikatuz. Hiriak garbi mantentzea beharrezkoa dela ukatu gabe, eta kale-garbitzaileen lana gutxietsi gabe, zaintza garbiketa baino gehiago da, eta, okerragoa dena, kaleak garbi mantendu nahi izateak garbizaletasun sindromea du ezkutuan, edo beste modu batera esanda, zikintasunaren ulerpen oso zehatz bat.

Gorputz azalaren garbiketaren kulturarekin bat eginez, gureak diren izerdi, koipe, mikroorganismoak esponjarekin gogor ezabatze beharra dugu ekintza ona delakoan, egiatan azala ahuldu egiten dugunean. Bada, azken batean, kaleetan eta hiritan ikusi nahi ez diren arrastoak desagertzeko trikimailua da garbizaletasuna, kalearen zenbait osagai deseroso ezabatze

energia-ekintza. Eta ekintza hori, zaintzatik urruti, biolentzia eragile esanguratsua da.

**Hirien zaintzak, kalearekin afektuak eraikitze lanarekin harremanean egon beharko luke.** Zaintza laburtzeko eskatuz gero, afektuen saretzea dela esango nuke. Ahaztuta dugu kalearen zaintza guregan hartzeko ideia, izan ere, beste batek egingo du. Gure etxe aurreko kalea polit jartzea, landareak ureztatuz, pareta zurian atondurak jarritz, eginkizun politiko bilakatu zitekeen, ekinean kalea espazio garrantzitsu bilakatzen dugulako. Zaintzaren ekintzan lotura bat eraikitzeaz gain, publiko eta pribatuaren kategoria hertsia puskatzen ere arituko ginateke. Hiriaren zaintzan jabegoak ez du hitzik hartzen, eta, beraz, hirigintzaren funtsezko harria desegiten hasten da. •

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

# Biharkorako hiru motibo eta gertu-gertuko hiru aurrekari

**A**bstentzioak du biharko hauteskundeen emaitzaren giltza, dudarik ez da hortaz, nahiz eta hauteskundeak deitu dituenaren jokabidea ikusita kontrakoa pentsa litekeen. Azti modernoak omen diren kabinete-buru orojakileen iparrorratza (demoskopia) noraezean jira-bueltan dela, kanpainarik gabeko hauteskunde batzuetara eraman gaituzte, bozak mugitzeko beharrik izango ez balitz bezala, alajaina! Ulergarria da askoren haserrea, baina ulergarriagoa bozik eman gabe ez dela gero emaitzarekin haserretzeko eskubiderik izango. Arrazoi asko eta asko daude beti hautetsontzietara heltzeko, handiak eta txikiak, kolektiboak eta pertsonalak, hangoak eta hemengoak... Modako esaera da boto papera hartzeko hiru motibo behintzat behar direla. Hona doaz askoren arteko hiru, denboran zein geografian gertu-gertuko hiru oroitzapeni loturik.

**Faxismoari stop (Andaluzia, 2018ko abenduaren 2a):** Orain bezala, gehiengotik urruti omen zen *trifachito*-a, baina abstentzioak (ia %44) ireki zion agintera bidea. Laster urtebete egingo duen akordioak ibilbide motza izango zuela pentsatzen kontsolamendua bilatu zuen batek baino gehiagok, baina ederki ari dira moldatzen eskuineko indarrak Andaluzian; eta Madrilen, eta Murtzian... Kristorenak eta bi bota zituen Voxeko ordezkariak astelehen gaueko debatean, baina PPko eta Ciudadanosen "aurkariak" itxurazko zuzenketak baino ez zizkieten egin: "txiringito" batean ibili izana aurpegiatu zioten, esaterako, ez faxista, Francozalea, matxista, xenofobia eta abar izatea. Eskuin espainiarrean hegemoniko bilakatu diren kontu horiek eztabaidatzeari beldur diote Casadok eta Riverak. Kontuz, hortaz, arazoa sakon-sakona baita. Apirilean hutsean gelditu zen *trifachito*-a EAEn; baina *cuatrifachito*-a Nafarroan, UPNren ekarpenari esker. Euskal Herria ez dute hain erraz kikiltzen.

**Independentismoak eutsi (Katalunia, 2017ko abenduaren 21a):** 155. artikulupeko salbuespen egoeran lorturiko garaipen horri ez zaio duen garrantzirik eman oraindik. Urrian erditu baino ez-jaiotako Errepublikaren nahi eta ezinak jota zebilen independentismoa une hartan eta luzerako lurperatzeko ahalegina egin zuen Estatuak, baina erronkari heldu eta gehiengoari eutsi zioten independentistek. Horrek ez du momentuz bidea argitu, baina ondo bizi ezin denean bizirautea ere garaipena da. Trantze hartan etsipena nagusitu eta abstentzioa Andaluziakoaren parekoa izan balitz, erraz irudika liteke norainoko zuloan egongo zen sartuta bi urte geroago, segur aski, gainera, are bortitza goa izango zen Gorenean kolpearekin. Baina bozkatze-ra joan ez zirenen kopurua ez zen %21era ere heldu.

Andaluziak, Kataluniak eta Estatuko azken hiru hauteskundeek bidea erakusten diete antifaxistei, independentistei, politika egitearen aldeko guztiei

**Politikari bide (Madril, 2019ko apirilaren 28a):** Garaiotan Espainia aldean ia adierazpen iraultzailea ematen badu ere, politika egiteko ematen dira bozak. Bitxi bitxia izan da azken hilabeteotako bilakaera, Madrilgo erregimenaren ikuspuntutik politikaren aurkakoak, antisistemak, biolentoak ziren horiek guztiak politika egitearen aldekoenak bihurtu baitira. Apirileko kanpainan jada estatu sen handia erakutsi zuen Pablo Iglesias, Sanchez edo Casadorekin alderaturik. Aurretiko zentsura mozioan "konfort gunetik" ateratzeko prestutasuna frogatua zuen EH Bilduk. Agintari nagusiak kartzelan eta atzerrian izan arren, eskua luzatuta konponbide eske ahalegindu da ERC. Egun politika gerta dadin itxaropen bakarra hortik pasatzen da; beren herrietan jakina, baina Espainia aldean ere bai. •

# ARALAR: DUDAN GUZTIA DA, HAU NAIZ NI



Maidor lantzi Goienetxe

«Aralar, artzain eta jentilak» liburuan Joseba Urretabizkaia argazkilariak eta Alvaro Bermejo idazleak Araizko bailarara eramaten gaituzte, espazioa denbora -antzinako denbora- bilakatzen den bidaia batean. Bertako altxorra ezagutaraztea da asmoa, «askoz hobeto biziko baikara arbasoen kultura ezagututa».

**B**edaioaren ondotik, Azkarate. Gero Atallu, segituan Ariben. Aralarreko Mailoak aitzinean ditugu. Bertan dago Euskal Herriko monumentu megalitikoaren dentsitate handiena. Menhirrak, mairu-baratzak, trikuharriak, harrizko etxeak, behin jentilak desagertuta,

**Aralarko artzain bat bere sukaldean, gazta mahaian duela.**  
Joseba URRETABIZKAIA


artzainek artaldeak gordetzeko erabili zituztenak. Bertan jaio zen Mariren kondaira. Eta ez da kasualitatea euskaldunen jainkosa honek ahuntz oinak izatea.

Irumugarrieta da mendilerroko gailurrik altuena, 1.427 metroarekin. Zaila da gure artzainak garaiera horietara igozen irudikatzea, sega bizkarrean, belarra mozteko eta mendi kableen bidez jaisteko. Atzera egiten ari da artzaintza, eta Araizko bailara jendez husten. Duela 25 urte soilik Intzako herrian 6.000 ardi baino gehiago zeuden. Egun kopuru bera dago Aralar osoan. Enpate teknikoa, beraz: 2019 honetan Aralarren ardiak bezainbat pertsona daude.

«Aralar, artzain eta jentilak» liburuko datuak dira. Araitz, Betelu eta Errazki-

nen dozena bat artzain daude Aralarren etxola dutenak eta horiek elkarriketatu dituzte Joseba Urretabizkaia argazkilariak eta Alvaro Bermejo idazleak libururako. Azalean, eta erreportaje honetako azken orrialdeko irudian, Txomin Otermin ageri da. Espero gabe, berari egindako omenaldi txiki bat bihurtu da liburua, duela gutxi zendu baitzen 84 urteko artzaina.

«Maketa erakutsi nion eta asko gusatu zitzaion. Lehenagotik ere azalean jartzeko asmoa genuen, euskal artzainaren prototipo gisa», kontatu du Urretabizkaia. Duela urtebete pasa egin zituen argazkiak. «Argitaletxe txiki bat daukat, Xibarit, eta Euskal Herriko hainbat gairen inguruan ari naiz lanak argitaratzen duela bi urtetik.



Donostiatik Araizko bailarara 40 kilometro daude. Bidean, espazioa denbora bilakatzen da. Zaratatik isiltasunera pasatzen gara, misteriora.

Joseba URRETABIZKAIA



Artzain batzuekin eta ardiekin mendi aldera joan ginen Bermejo eta biok; etxolan bazkaldu eta egun-pasa egiten genuen. Harremana egin dugu».

#### JATORRIZKO BIZIMODUAK JASO

Irudi guztiak zuri-beltzean dira. «Erbaki hori hartu nuen zuri-beltzak ez duelako despistatzen. Testurak, gogortasun hori, asko nabaritzen da. Eta artzainen bizimodua gogorra da. Gusturago ibiltzen naiz gai hauekin zuri-beltzean. Eroso sentitzen naiz».

**Artzaintza atzera doa, eta bailara jendez husten ari da. Duela 25 urte soilik Intzan 6.000 ardi baino gehiago zeuden. Gaur egun kopuru bera dago Aralar osoan. Enpate teknikoa, beraz: 2019an Aralarren ardiak bezainbat pertsona daude**

**«Mendian egotea, ardiekin bakarrik, gogorra da-aitortu zien Txominek liburuaren egileei-. Askotan pentsatzen duzu: seguru denak ni baino hobeto bizi direla. Baina agian ez. Nork daki nola bizi den bakoitza?»**

“Origen” sailean kaleratu dute lana. Euskal Herriko eta munduko jatorrizko bizimoduak jaso eta zabaldu nahi dituzte bildumaren bidez. «Artzainen kasuan ere antzinako eran bizi den azken belaunaldia daukagu. Formak, tresnak, pentsaerak, naturarekin harremana... Eta ondo dago. Gaur beste teknologia batzuk daude, beste pentsaera eta beste erritmo batzuk. Eta ondo dago hori ere. Baina askoz hobeto biziko gara gure arbasoen kultura hori guztia ezagutzen badugu. Beste babes bat izango

## HERRI KIROLAK, ALBAICIN, ERREZIL SAGARRA... ARGAZKI UZTA OPAROA

Joseba Urretabizkaia Tolosan duen argazki estudioa bere sormen oparoaren erakusle da. Proiektu pila bati ekiteko gogoia sentitzen du, gogotsu dago eta bere lantokiak hori islatzen du. Bilduma bat egin du herri kirolean eta pilotan inportantea izan den eta bizirik dagoen jendearen biografiekin. Sail horretako azken liburua, Zelai harri-jasotzaileari buruzkoa, plazaratu berri du. «Lehengo erako bizimodua dutela eta orain berriak beste modu batera bizi direla nabaritzen dut. Gaur egun atletak dira, baina lehen lana egiten zuten eta lanetik, apustua. Segan ibiltzen ziren, harriekin, egurra moztu... Nire ustez, kirola ez da hitz egokia egiten zutena definitzeko. Eguneroko lanak plazaratzea zen. ‘Ni zu baino gehiago naiz, ikusiko dute’ esan eta apustu egiten zuten», azaldu du.

Liburu erabat bestelakoa amaitzen ari da, Granadako Albaicin auzoaren ingurukoa, jatorrizko beste kultura bat. Ijitoak eta euren historia jaso ditu. «Oso ederra eta aberatsa da. Arrasto horiekin kargatzen ari naiz bizi modernoa hobeto bizitzeko. Zein behar zituen jende honek bizitzeko? Eta gure baserriko aitona-amonak? Orain gauza pila bat ditugu. Dena daukagu eta dena behar dugu. Itxaron pixka bat. Agian bai, baina agian ez», egin du gogoeta.

Errezil-sagarrekin ere egingen du liburu bat. «Argazkia, diseinua... dena egiten dut. Testua soilik behar dut norbaitek egitea. Normalean gaia azaltzen diot idazleari eta elkarrizketa batzuk egiten ditugu elkarrekin. Berak testua prestatzen du eta nik argazkiak ateratzen ditut», agertu digu dokumentuz betetako bere lan-mahaian egin dugun elkarrizketan.



dugu eguneroko ahaleginak egiteko. Gazteek kultura horren berri izan behar dute, ez hala bizitzeko, baina bai aztarna hori edukitzeko», aldarrikatu du Tolosako argazkilariak.

«Kulturalki hori da gure desberdintasuna. Euskararekin berdin pasatzen da. Euskaraz jakitea oso inportantea da, baina euskara kulturarekin ezberdina da. Niri euskara kulturarekin interesatzen zait. Hizkuntza ez da hitza bakarrik; pentsaera da, paisaia, forma...». Gogoeta bultzatzea da asmoa.

13 artzainetatik 10 gizonak dira eta hiru emakumeak. «Orain arte matriarkatuan bizi izan gara. Etxean hala ikusi dut. Mari gure jainkosa zen. Artzaina esan eta gizon bat irudikatzen dugu, baina emakumeak ere ibiltzen dira. Nola ez dira artzainak izango? Beraiek eraman dute askotan baserriko pisu guztia. Eta baserria beti lanean ibili beharreko espazioa da».

**GAZTEEN SEGIDA**

«Mendian egotea, ardiekin bakarrik, gogorra da –aitortu zien Txominek liburuaren egileei–. Askotan pentsatzen duzu: seguru denak ni baino hobeto bizi direla. Baina agian ez. Nork daki nola bizi den bakoitza? Badakit mendian egotea gogorra izan arren artzainaren lekua hau dela».

Txikitatik Aralarra joateko ohitura duen Tolosako argazkilariak azaldu duenez, badaude gazteak bailaran ilusioarekin, gazta ona egiten, beste era batera, eta babestu beharra dago. «Bada segida, beste historia batzuekin, modernitatearekin, eta hor daude gazta, ardiak eta Aralar. Baina erabat desberdin». Lehengo egiteko moduak gor-

Elkarrizketatutako 13 artzainetatik 10 gizonak dira eta hiru emakumeak. Ardiez gain, baserriko bertze animaliak ere gobernatzen dituzte, eta lan guztiak egin. Baserria beti lanean ibili beharreko espazioa da.  
Joseba URRETABIZKAIA



**Tolosako argazkilariak azaldu duenez, badira gazteak bailaran ilusioarekin, gazta ona egiten, beste era batera, eta babestu beharra dago. «Bada segida, eta hor daude gaztak, ardiak eta Aralar. Baina erabat desberdin»**

**Hasieran, argazkilaria eta kazetaria mendian ikusi eta animaliak bezala joaten ziren artzainak ihesi. Kaletarrek ulertu nahi zuten beste mundu bat egon arren kolpeka aurrean, zergatik ez zioten atea irekitzen**

**Txomin Otermin 84 urteko artzaina, liburuaren azala ilustratzen duen irudian.**  
Joseba URRETABIZKAIA

de dituzten artzainen azken belaunaldi horretan altxor txiki bat dagoela ikusten du Urretabizkaiak, hizkuntza bezala. «Jende horren eskuetan dago euskara, ez bakarrik ahotsean, begiradan ere bai. Oso lotuta egon dira naturarekin. Nahiz eta errepide ondoan egon, aparte egon da bailara eta lehengo erak gorde dira: hizkuntza, formak, tradizioak... Oraindik badaude halako lekuak Euskal Herrian».

#### BIZIMODUA

Txomin goizean goiz jaikitzen zen, argiarekin batera. Ardiak jetzi, gero gosaldtu, ardiak atera, bazkaldtu, siesta, arratsaldean ere ardiekin ibili... Bera bakarrik. Azkeneko egunetara arte makurtuta jezten zituen, aulkirik gabe. «Halako jendearen gaztak bereziak dira». Txominen azken gazta Tolosan egin zuten liburuaren aurkezpenean jan zuten, omenaldi txiki batean.

«Baserriko amona oso kristaua izan da, baina paganoa ere bai. Naturarekin harreman handia baduzu espirituala zara. Eguzki-lorea kanpoan, alderantziz jarritako gurutzea baratzean... Lehenagoko kultura. Oso nahasketa polita da. Hori dena nabaritzen da hizkeran, oinez ibiltzeko moduan, ikuskeran...», agertu du Urretabizkaiak.

Jakinduria basati baten jabe diren filosofo natural gisa definitzen ditu artzai-

nak Bermejok. Artaldean arteko libre-pentsalari gisa. Hala idatzi du Txomini buruz: «Zoko ilun eta hautsez betetako horretatik goiz honetan prestatu dituen zazpi mamiak ateratzen dizkigu bata bestearen atzetik. Bere zurtasuna, hain garbia, distiratsua da ia. Eskaintzen digun samurtasuna adina, hau esango baliogu bezala: 'Daukadan guztia da, baina hau naiz ni'».

Hasieran, argazkilaria eta kazetaria mendian ikusi eta animaliak bezala joaten ziren artzainak ihesi. Baina, behin konfiantza hartuta, primeran moldatu dira. Kaletarrek ulertu nahi zuten beste mundu bat egon arren kolpeka aurrean, zergatik ez dioten atea irekitzen. Galdera horri bertze galdera batekin erantzuten diote artzainek: «Zer erantzunen lizuke haritz batek?». Barre egiten dute. «Tarteka jaisten gara eta ondo egoten gara. Baina buelta mendira». Gutxi gelditzen dira han lotan. Horietako bat zen Txomin. «Marmita handi bat zuen ozpinarekin eta horrekin filtratzen zuen esnea. Gusura joaten ginen berarengana».


Urretabizkaiaren ustez, artzain gazteek adinekoen sakontasun hori barruan dute. «Gustatuko litzaidake erraztasunak ematea eta gazteak mendi aldera joatea».

Tolosan izan ondotik, Aribeko ferian aurkeztu zuten liburua. Madrilen ere azaldu dute interesa eta hara eramateko asmoa ere badute.

## IZAERA ERAKUSTEN DUTEN ISTORIOAK

Artzainen izaera ulertzeko pasarte batzuk jasotzen dira liburuan. Horietako bat artzain baten ilobak kontatua da. Artzain hori eta haren etxolarekin muga egiten zuen txabolako artzaina haserre zeuden gaztetatik liskar zahar batengatik. Hala bizi izan ziren, bordatik bordara elkar behatuz eta zainduz, 50 urtean elkarrekin hitz bakar bat egin gabe. Egun batean euretako bat hil zen eta bertzea ez zen berdina izan. Triste, gogorik gabe sumatzen zitzaion, erretiratzeko nahiarekin. «Baina zer gertatzen zaizu, Martin?», galdetzen zioten senideek. «Zer gertatuko zait? Jada ez daukadala norekin haserretu!». Bertze istorio bat. Lagun batek artzain bat bisitatu zuen, konfiantza handikoa. Ongi zihoan dena, itxuraz galdera hutsala egin zion arte: «Zenbat ardi dituzu?». Artzainaren erantzuna antologikoa da: «Begira, galdera hori ez inoiz egin gutako inori. Bankuan zenbat diru duzun esaten didazunean, orduan esango dizut zenbat ardi ditudan».


Halakoak dira artzainak, idatzi du Alvaro Bermejok, justukoa kontatzen dizute, beti neurtuz. Txomin Otermin, adibidez, ahotik ateratzen zitzaion hitz bakoitza pentsatzen zuen –eta ez ziren aunitz–. Idazleak kontatzen du artzain zaharrak entzuten irakatsi ziola hitz egiten zuen bitartean.





EXPRAI

# iRRITZIA:



# Amaitu da txokolatezko palmeren garaia

Oihane Larretxea  
de la Granja

Umea nintzela, nerabezaroa oso urrun nuenean, eskolarako arkatz gorri-urdina erosten genuen Graphos kartografia dendan. Bi koloreko mina lodia zuen, oso lapitz berezia zen, negozio hura bezalaxe. Mapak eta planoak saltzen zituen, eta erakusleihoa handia eta ikusgarria zen. Gaztaroa are urrunago nuen eta, jakina, ez nintzen gai denda hark zuen balioa estimatzeko. Donostiako Parte Zaharrean zegoen, Kale Nagusian. Gaur, nola ez, izozki denda bat dago bertan.

Umea nintzela, aitona Arseri kakahuete erreka erosten nizkion Konstituzio Plazan. Ia ezkutuan, arkupetan, labe za-

har bat zegoen. Iluna zen. Sugar haiek aspaldi itzali ziren. Egun, taberna baten biltegia da. Ez dario fruitu lehor usainik.

Haurra nintzela, arratsaldeak erretzen genituen Santa Mariako eskaileretan berriketan. Ia etxeko zapatiletan jaisten ginen. Ordu luzez eseri aurretik nork bere goxokiak erosten zituen Goxon. Nik morenito izoztuak, lima-limoizko flash bat eta Triskis pakete bat. Uste dut 50 pezeta zirela. Egun, beste taberna baten biltegia da lokal hura eta eskailerak oso “instagramagarriak” ei dira.

Nire hilerri partikularren zerrendarekin jarrai nezake, baina min ematen dit. Min handia. Duela gutxi egin da pu-

bliko Izar gozotegiak ateak itxiko dituela. Auzotarron artean aspalditik zen ahoz aho zurrumurrua, baina entzungor egiten nien esamesei, patua aldatuko zen esperantzarekin. Taberna bat irekiko omen dute. Nire Izar kuttuna. Nire txokolatezko palmerak. Miren eta gaintzetzeko saltzaileak. Mina dut.

Toki kuttun gutxi gelditzen zaizkit auzoan. Amoñi Lutzik eramaten gintuen Gorritira arrautza bola jatera Bretxan erosketak egin ondoren. Geroztik, nire parte da. Nahiko nuke auzoa desegiten ari den birusa gelditu. Nahiko nioke alabari ohitura erakutsi eta barraren beste aldean Juantxo urte luzez agurtu. •

# Konpainia arriskutsuak

Koldo Sagasti

Urriaren 23an Eran Efratik agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean. Efratiren ibilbide pertsonal eta politikoa berezia bezain eredugarria da. Jerusalemen, tradizio militar eta sionista handiko familia batean sortua, bigarren mailako ikasketak bukatutakoan harengandik espero zitekeen gauza bakarra egin zuen, Israelgo Armadan sartu. Bertan, Zisjordaniako Hebron hirian soldadutza egiten ari zela, okupazioaren aurpegi lazgarrienarekin egin zuen talka; eta bizi-esperientzia horrek iraultza pertsonala eragin zion. Armada utzi eta Israelgo disidentziako zenbait talderekin lanean hasi zen, gudaroste sionistak eremu

okupatueta burututako giza eskubideen urraketen inguruko testigantzak jasotzen. Egun, Researching the American-Israeli Alliance erakundean, Israelleko armagintza merkataritzaren inguruko ikerkuntza lana egiten du.

Horixe izan zen, hain zuzen, Legebiltzarrean egindako mintzaldiaren helburua; Euskal Herriko enpresarearen eta Israelgo erregimenaren arteko armagintza salerosketen berri ematea. Baina anfitrionien ezinegonerako, ikertzailea ez zen diskurtso generikora mugatu; aitzitik, oso esplizitua izan zen bere jardunean gerra merkataritzako arduradunei izen-abizenak jarritzak. Batetik, elkarlan militarrekiko salaketa segurtasunaren eremura za-

baldu zuen. Hala, Ertzaintzak Israelen egiten dituen trebakuntza ariketen berri eman zuen, eta euskal poliziari jarpen eta tortura teknikan formakuntza ematen dion enpresaren dokumentazioa aurkeztu zuen. Bestetik, okupazioa egonkortzeko azpiegiturak ere sartu zituen gerra-merkataritzaren esparruan, eta salatu zuen Gipuzkoako CAF trengintza enpresak esku artean duen proiektua, kolonia ilegalak tranbia sareaz hornitzeko. Informazioa ez zaie falta euskal erkidegoko erakundeetako kudeatzaileei; falta zaiena, akaso, Efratik behinola erakutsi zuen ausardia da, berak egin zuen bezala, historiaren alderdi zuzena aukeratzeko. •

# KLK TREBAKUNTZA ZIKLOA

## Bost hilabeteko zikloa, militanteen ahalduntze politiko eta soziala helburu

**I**ratzar Fundazioak, Ipar Hegoa Fundazioak eta Ernaik gazte erakundeak antolatuta, datorren astean hasiko da KLK jabekuntza politiko eta sozialerako trebakuntza zikloa, martxora arte luzatuko dena. Taldeak asteartetik aurrera osatuz joango dira Donostian, Bilbon eta Iruñean, eta baliteke Arrasaten ere laugarren bat eratzeari, Gipuzkoako eta Arabako parte-hartzaileentzat. Idoia Zengotitabengoa eta Joseba Permach trebakuntza arduradunek azaldu diote GAUR8ri KLKren nondik norakoa.

Iratzar Fundazioa duela bi urte hasi zen trebakuntza arloan bidea egiten, oraindik diseinu borobil bat egin gabe, baina XXI. mendeko trebakuntza politikoa zer izango zen zehazten joateko *feedback* etengabea. Hasieratik argi zuten kontu horrek ez zuela Iratzarrena edo Sorturena bakarrik izan behar, baizik eta beste eragile batzuekin batera jardun behar zutela, kasu honetan Ipar Hegoa Fundazioarekin eta Ernai gazte erakundearekin.

### IPARRORRATZETIK KLKRA

2017an Iparrorratza izenburupeko zikloa antolatu zuten, hiru orduko lau saio zenbait galdera «potoloren» inguruan: Nondik gatoz? Non gaude? Norra goaz? Nola goaz? Orduan, saio horiek ez zutela askorako ematen ikusi zuten, edukietan lan handia egin beharra zegoela, oinarri bat emate aldera. Eta, bestetik, gaitasunetan trebatzeko aukera ere eskaini beharra zeukatela pentsatu zuten; alegia, jendeak jakintza eta tresnak erabiltzen ikastea ere garrantzitsua dela, hala nola jendaurrean hitz egiten edo herriko mapa bat egiten ikastea.

 **POLITIKA** / Xabier Izaga Gonzalez

Datorren astean hasiko da Iratzar Fundazioak Ipar Hegoa eta Ernairekin batera antolatu duen KLK trebakuntza zikloa. Bere burua ezkertiar eta independentistatzat duen edonorentzat pentsatuta, bost hilabete zehar eztabaidatzeko, hausnartzeko eta bertan jasotako jakintza eta tresnak erabiltzen ikasteko aukera da.



Iaz KLK zikloa antolatu zuten, aurreko urteko Iparrorratza bezala nolabait itxia, batez ere LABeko, Ernaiko eta Sortuko militantziari eskainia. Aurtentzen, berriz, irekia izatea erabaki dute eta edonork parte hartzeko aukera dauka, bere burua ezkertiar eta independentistatzat jotzen duen edonork. «Ongi etorriak izango dira denak», diote.

### GELA IRAULIA

Zikloaren «hanka bat» online saioak dira eta bestea, presentzialak. Gela irauliaren filosofiaren ikuspegia dute eta. Denek materialak eta edukiak jasotzen dituzte eta bakoitzak horiek lantzeko aukera du. Ondoren, saio presentzialean, denek informazio bera dutela, eztabaidatu eta ariketak egingo dituzte. Iritzi trukaketarako gunea izango da, elkarri ikasi eta irakasteko ariketa.

Iazko KLK zikloa beste modu batez diseinatu zuten, eta praktikara eramandakoan aurtengo eskaintza birformulatu egin dute. Hartara, pentsamendu kritikoari buruzko saioarekin hasiko dira, eta bigarrenaren bileren dinamizazio edo barne dinamizazioari buruzkoa izango da, oinarritzat baitira. «Alde batetik, militantziarentzat, eta oro har pertsonarentzat. Pentsamendu kritikoa bultzatu nahi dugu herri ahalduntze horretan, eta bileren dinamizazioa KLK bigarren ziklo hau osatzen dugun taldeari buruzko begirada bat da». Bertan botere harremanez hitz egingo dute, joko arauak zehaztuko dira eta hitza hartzen ikasiko dute, baita noiz isildu ere. Funtzionamendu arauak ahalik justuenak izan behar dutela diote.

Azaldu dutenez, saio presentzialetan konfiantza esparru bat sortzea oso garrantzitsua

da, denen artean eraikitzen joateko. Guztien artean eztabaidatzeko guneak dira, guztien artean ikasteko guneak, eta nork bere esperientziatik ekartzen dituenak mahaigaineratzen ditu. Horregatik, irekia izan arren, taldea egin eta konfiantza sortzen dela diote, eta inongo erakundetan antolatuta ez dagoena ere saio horietan sortuko den komunitateko kide izango da eta ondo sentituko dela uste dute, parte-hartzaileek ekar ditzaketen ideiei buruz ere eztabaidatzen dela ikusita.

#### ZAZPI SAIO

Aurten, zikloak iraungo duen bospasei hilabeteetan zazpi saio presentzial izango dira, eta hasierako galdera horiez gain, beste aztergai batzuk izango dituzte, baita «gaitasunetan trebatzeko aukera» ere. Honako gaiak landuko dituzte:

–Ikuspegi kritikoaren ezin bestekotasuna. Nola eta nondik begiratu?.

–Barrura begirada. Gure funtzionamendutik ahaldunduz.

–Nondik gatoz? Ezker Aertzalearen historiaz eta borroken uztarketaz.

–Non gaude? Zeintzuk dira egungo garaiak ulertzeko gakoak? Zer ari da gertatzen mundu mailan? Zer ari da gertatzen gurean?

–Nola goaz? Nola pentsatu eta egin gaurdanik askapen prozesua? Nola ezaugarrituko dugu? Estrategiaren egokitza-pena, militantzia ereduaz, dinamizazio politikoaz...

–Nora goaz? Beste mundu bat dugu xede? Zertan datza euskal demokrazia ereduak? Zertan zerumuga sozialistak eta feministak?

Azkenik, esan bezala, «ahalduntze tresnak» eskainiko dituzte: jendaurrean hitz egiteko teknikak, dinamizazioa, anali-

Aurtengo KLKra izena eman dutenen ehuneko handia gazteak dira. Iazkoan ere, bi orrialdeotako irudietan ageri denez, halaxe ziren. IRATZAR



siak egiteko tresnak, prospekzioa egiteko ariketak...

Online saioetan, berriz, astero materiala jarriko dute eta, «nahiz eta ez den naturaltasun berarekin egingo», talde bakoitzak duen foroan edukien arabera eztabaida sortzeko helburua dute, proposatutako bideo, testu edo dena delakoa oinarri hartuta.

#### TREBAKUNTZAREN GARRANTZIA

Ondorio batzuk atera dituzte azken bi urteetan egin dituzten Iparrorratzari eta KLKri buruz-

ko *feedback* eta baloraziotik: Saioetan jendea oso gustura egoten dela, egia dela eztabaidatzeko konfiantza marko bat sortzen dela gutxika-gutxika, edo tresna aberasgarriak jasotzen dituztela... Eta beste ondorio batzuk epe luzeagoan ikusiko direla diote. Hala ere, beti korapilo bat geratzen omen zaie, urgentziarena, hain zuzen: «Gure militantzian, gure oinarri sozialean eta arlo zabalagoan ere oso aktiboak garen herri honetan urgentzia lehenesten da beti».

**Gaitasunetan trebatzeko aukera ere eskaini beharra daukatela uste dute, jendeak jakintza eta tresnak erabiltzen ikastea ere garrantzitsua dela, hala nola jendaurrean hitz egiteko**

**Saio presentzialetan konfiantza esparru bat sortzea oso garrantzitsua da, denon artean eraikitzen joateko. Denen artean eztabaidatzeko guneak dira, denen artean ikasteko guneak**

Parte-hartzaileen profilari dagokionez, badirudi ez dutela gazte jenderik falta eta datu bat eskaini dute adibide gisa: Bizkaian, 1990eko eta 2000ko hamarkadetakoak dira Bilboko talderako izena eman dutenen %90. «Trebakuntzarako arazoa orain ez dago gazteengan». Saio presentzialetan hainbat belauditako jendea egotea oso baliagarria dela diote, jakintza trukerako. Uste dute ezker aertzalean oso txertatuta dagoela aurremilitantziaren ideia, eta trebakuntza aurremilitantziarekin lotu izan dela. «Badirudi erakunde batera sartu aurretik trebatu behar duzula eta gero praktikaren bitartez ere trebatuko zarela, eta hori egia da, ez dugu mespretxatu behar, egunerokotasun horretan asko ikasten baita, baina tarteak hartzen ere jakin behar da premia horretatik aparte, geure burua trebatu eta egiten dugunaz hausnartzeko», bukatu dute.



**Beñat Gaztelumendi**  
Bertsolaria

## Aterki berriarena



Zertarako dira aterkiak estoldek gainezka egiten dutenean? Jon URBE | FOKU

**A**terki bat erosi dut. Aterki familiar bat, bi-hiru lagun sartzeko modukoa, beltza, oihalaria eusteko burdinazko adarrak eta eskua jartzeko egur bihurrituzko helduleku sendoa dauzkana. Lagunek aspaldi esan zidaten banuela aterki bat erosteko garaia, nekatu zirela ni arkupeaz arkupe lasterka ikusiz; errukitu egiten zirela euriaren umelak desordenatutako nire burugainari begira. Ez zela hainbesterako erantzuten nien nik: ilea motza daukadala eta berehala lehortzen zaidala, eta desordenarena ez dela euriaren kontua, odolean daramadala. Ez dela hain txarra norberak aterkirik ezean besteengan aterpe bila ibiltzea. Irriz begiratu, bizkarrean kolpe bat eman eta noizbait zentzatuko nintzela esaten zidaten.

Zentzatu beharrean obsesionatu egin nintzen. Nindoan lekura nindoala aterkiak ikusten hasi nintzen, aterki familiarrak. Eta bikoteak aterkipean, mundutik kanpoko aterpean, elkarri besotik pelikuletan bezala helduta, pausaje sinkronizatuz eta espaloien zabalera osoa hartuz, paseoan. Aterkiak bata bestearen atzean, bata bestearen aldamenean. Desiratzen egoten nintzen haize-kolperen batek noiz joko, aterkiei buelta noiz emango. Eta tarteka, gertatzen zenean, ezpain ertzetatik malezia zeridala ikusten nituen oihalezko aterpeen bat-bateko hausturaren ondorio dramatikoak: besoak elkar askatzen eta bi pertsona nor bere aldera eta, tartean, aterki puskatu bat, plastikozko poltsa bat balitz bezala, haizearen mende. Baina hasierako mendeku grinari halako enpatia batek gaina

hartuko zion berehala, ezin azalduzko tristura batek. Eta, euripean, bustita, hutsune sentsazio batekin begiratu nion hegan zihoran aterkiari.

Latzagoa zitzaidan, ordea, arkupetik arkupeko nire ibili kaotikoan aterkien babeseremutik adi neuzkan begi haiek sentitzea, udako sargorian gorputzera itsatsitako ezpak balira bezala. Haien epaiak, haien errukia eta haien isekak sentitzen nituen: “gizajoa”, edo “ez ote daki kalean zuzen ibiltzen?”, edo “zentzatuko haiz”. Bai, “zentzatuko haiz” hori berriro, obretako mailuen oihartzuna bezala garunean kolpeka, “zentzatuko haiz, zentzatuko haiz”.

**Eta gaur zentzatu naiz. Aterki bat erosi dut, familiarra. Eta euria hasi du; euria goitik behera, ezker-eskuin; euria amorruez, erruki gabe.** Euria San Martin kaleko hondeamakinetan, euria Bretxako merkatu ertzeko baserritarren postu apurtuetan. Euria Altsasun, euria Lesbosen, euria Santiagon, euria Bartzelonan. Hezetasuna zapatila-puntetatik sartu zait, haizeak bizkarra busti dit, sakela, hizkuntza. Nire aterpeari euria dario, itoginak dauzka eta ura hazita dator espaloi ertzetan; zapata-zolak gaingitu eta orkatiletara iritsi zait, eta aterkiaren egurrezko heldulekuari galdera-ikur baten antza hartu diot. Zertarako dira aterkiak estoldek gainezka egiten dutenean? •

{ koadernoa } **Itzea Urkizu Arsuaga**

# Zapla!

**P**atuak kondenatuta nauka, hauteskunde hitzorduen bezperetako iritzi testuak idaztera; agerkari honetan, halaxe tokatu zait azken hiru alditan. Aldi gehiegi-txo, akaso, gure etorkizuna askatasun osoz aukeratzen dugula sinesten jarraitzeko. Horregatik, ez pentsa testu honek biharko hitzorduaren bueltako zurrumbilo, ika-mika eta lehiak hartuko dituenik. Ez. Hausnarketa egunak Madrilen harrapatu nau, baina ez kongresura begira.

Udan oparitan jaso nituen, gaur, Wizink aretoan, Berri Txarrak ikusteko sarrerak eta lo lekua. Kontzertuaren aitzakian, posta bidez eman dut botoa, ikusi dut haren funtzionamendua, eta sortu zaizkit botoaren eta hura helmugara iristeko aukeren inguruko zenbait zalantza. Baina alferrikakoak dira susmo guztiak, aske eta erabakimenez ari garenez. Kontzertuetan bezala.

Sarrera erosi duzu hitzordu gogoangarri baten grinaz. Zuk 1,63 metro neurtzen duzu, eta hori ez da ez zure errua ezta 1,92 metro neurtzen duen eta zure aurrean dagoen tiporearen errua ere. Geneena, gizateriaren eboluzioarena edo nork daki zerena den errua. Kontua da, erronka oso desberdina dela, batentzat eta besterentzat, kontzertuaz gozatzea. Ikuspegi panoramikoak versus buru arteko tarteen enkoadraketa perfektua. Dena emanda jasotzea versus iristen denari ahalik eta zukurik handiena ateratzea. Zerua zabalik, edo kristal bat aretoko sabaian (ere).

DNAn idatzirik datorkigun altueraren anekdotan utz nezake kontua, baina ez dut nahi. Sinestarazi baitigute, sentitzen, susmatzen, imajinatzen, desiratzen dugun hori egiteko libre izan behar dugula. Botoarekin bezala, baina paperik gabe; nik nahi dut, eta egin egingo dut. Eta, horrela, gitarraren sokak ia ukituz lehen lerrotik kontzertua ikusi nahi duen berberak, garagardoa eskuan izan nahi du se-

gundoero. Eta bigarren kanturako jendea barrara bidean jartzen da, eta zure abesti kuttunetan kuttunenari ez dizkiozu zentzumenak nahi beste zabaltzen, eskuinetik eta atzetik norbait datorrelako katxiarekin, eta aurretik zeharka hiru zale pasatzen ari direlako, tabernara joanda galdu duten zuloa berreskuratu nahian.

Ez naiz ni izango, musika onaz eta une errepikaezinez trago batekin gozatzearen kontrako aldarriari ekingo diona; alderantziz. Baina kontzertu askoren ondoren pentsatu izan dudana zerbait letretara ekartzeko aitzakia bat besterik ez da hau; gure eguneroko jarrerari autokritika egiten saiatzekoa. Nahi duguna aukeratzen eta borrokatzen dugula uste dugun bitartean, ahal duguna aukeratzen eta borrokatzen dugula, eta ingurukoaren ahalari edo ezinari begiratu gabe gainera.

Saia gaitezen gure eguneroko jarrerari autokritika egiten; nahi duguna aukeratzen eta borrokatzen dugula uste dugun bitartean, ahal duguna aukeratzen eta borrokatzen dugu, eta ingurukoaren ahalari edo ezinari begiratu gabe gainera

Hala plazaratu dute Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministek ere. Zapaltzen gaituzten bezala zapaltzen dugula askok.

Zapla, gure nortasun linguistiko menperatuari! Zenbaitek aukera dezakeguna, beste hainbatentzat posibilitatera ere ez dela iristen, eta hori onartzeak barrutik erretzen gaituela.

Zapla, pribilegio zuri eta heterosexualei!

Zaplaztekoek bezainbesteko mina eman zidan, Durangoko Salda Badago jardunaldiak gripetik eta sofako *streaming*-etik jarraitu behar izateak, baina tira... Hori bera halabeharrez hautatzeko aukera izate hutsa, bada nahikoa pribilegio, ezta? •

# «Egia bilatzen dugu errudunen ordezt, kaltea konpontzea zigorraren partez»

**S**ebastiana Par Guatemalako Kitxe Herrien Kontseiluko kidea da. Bizi den komunitateko alkatea eta gida espirituala ere bada. Aste-bete igaro du Euskal Herrian, Mugarik Gabe elkarteak gonbidatuta. Honat etorri aitzine-tik, Kataluniako Gironako IndiFest jaialdian parte hartu zuen.

«Bai herri indigena bai emakume bezala aurrera daramagun borrokaren berri ematea da bisitaren helburua. Maia Kitxe lurraldetik nator, aurre egiten ari garen arazoak azaltzeko asmoz. Politika neoliberal eta kapitalista globalaren ondorio dira arazo horiek. Gure gobernuetan eragiten dute. Ustelkeriak hartuta daude», hasi zaigu azaltzen.

Patxadaz mintzo da, kontatzen ari dena benetan larria izan arren. «Enpresa transnazio-nalak iristen dira gure lurretara. Ez dute ulertzen ama lurra sakratua dela, gure bizitzaren eta energiaren parte. Pertsonok energi-az ere osatuak gaude. Eta ama lurra gure iraupenaren parte ere bada. Eta iristen diren transnazio-nalen aitzinean, izan meatzeak, hidroelektrikoak edo palma afrikarraren landaketa, antolatzen ari gara».

**97 lizentzia zura ateratzeko**  
Transnazio-nal horiek ikaragarri eragiten diete bertako biztanleei. Kitxe herrietan eguren-presak dira gehienbat. 97 lizentzia daude onartuta zuhaitzak moztu eta zura ateratzeko. Basoak suntsitzen ari

## SEBASTIANA PAR GUATEMALAKO KITXE HERRIEN KONTSEILUKO KIDEA

Guatemalako Kitxe Herrien Kontseiluko kidea Euskal Herrian izan da Mugarik Gabe elkartearekin. Bizi den komunitateko alkatea eta gida espiritual-  
a da Par.

Maider Iantzi Goienetxe



dira eta horrek lehortek-  
ak ekar-tzen ditu, bertze kalte batzuen artean. Giza eskubideen urraketa handiak daude. Buruzagiak kriminalizatzen dituzte egiten duten lanagatik. Hilketak, desagerpenak eta liderren aurkako prozesu judizialak sufritzen dituzte komunitateek, lurraren eta bizitzaren alde egiteagatik. «Nazioko eta nazioarteko legeak egon arren, ez dago errespeturik, ez dago bermerik dagoen ustelkeriagatik. Gobernuak lizentziak ematen ditu herriei galdetu gabe».

### Alternatiba

Alternatiba zein den galdetuta, hala erantzun du Guatemalako kitxe herrien defendatzaileak: «Lehenik eta behin, antolaketa. Legeak nola aprobetxatu aztertu behar dugu, baita nazioarteko hitzarmenak ere. 169 ituna, adibidez. Gure eskubideak babesteko, justizia soziala exijitzeko, enpresek herri indigenen eta orokorrean pertsonen eskubideen aldeko legeak errespetatu ditzaten».

Parren ustez, kontsultak mekanismo bat dira, eta harreman instituzionalak eta nazioartekoak ere garrantzitsuak dira. «Bizi dugun egoera honetaz jakitun izan behar du jende gehiagok. Bertze lurraldeetako jendearen burua eta bihotza ernatu behar ditugu, kontsumismoari ez laguntzeko, kontsumitzen dugun neurrian natura eta bizitza kalte-tzen dugulako. Mundu osoan sufritzen ari garen klima aldaketa da horren erakusle».

### Ardura maila ezberdinak

Nola artikulatu borroka ezberdinak bizitzaren eta planetaren alde? Ardura maila desberdinak bereizten ditu Kitxe Herrien Kontseiluko kideak. «Alde batetik, norbanakoaren

jarrera dago, bizimodua aldatzeko prest al gauden, gu ere kontsumitzaileak baikara». Bertzetik, maila kolektiboa dago. «Familian, komunitatean, inguru sozialean, jarrera aktiboa izan behar dugu eta ez indiferentziaz jokatu». Hirugarrenik, «tokiko gobernuen konpromiso politikoa ezinbertzekoa da enpresek legeak errespetatu ditzaten».

### Gida espiritualaren funtzioa

Gida espiritual gisa egiten duen lana nolakoa den jakin nahi izan dugu. «Nire egunerokotasuna da, nire bizitza. Gida espiritual bezala eskertu eta eskaini egiten dugu, erri-tuen bidez. Euria, ura, basoak, ume baten jaiotza, ezkontza bat... Aunitz izan daitezke motiboak. Osatzearen parte ere badugu. Energiarekin egiten dugu, psikologikoki lagunduz, emozioak ulertuz, orekatuz, edota uraren, dantzaren edo isiltasunaren bidez sendatuz».

«Naturaren izaera sakratua ikusten dugu. Bizia du eta errespetatu eta defendatu egin behar da. Elkar lotutako izakiak gara, ez isolatuak. Bizitzaren sarearen parte gara. Ura, airea, eguzkia, zuhaitzak behar ditugu eta, beraz, zaindu egin behar ditugu. Natura kutsatzen badugu, gure burua kaltetzen dugu», azaldu du.

### Naturarekiko lotura galtzen

Gurean gertatzen den bezala, kitxe herrietan ere naturarekiko lotura hori galtzen ari direla agertu du Sebastiana Parrek. «Kolonizazio prozesu bat izan genuen, non ideologia bat inposatu ziguten. Ez zuten urrea soilik eraman, jakintza ere eraman zuten. Liburuak erre zituzten, errituak debekatu... Hortik etorri da erresistentziaren parte bat ere».


Azaldu duenez, biztanleria-  
ren zati bat erabat sartua dago  
erresistentzia prozesu horre-  
tan. Bertze zati batek mentali-  
tate erlijiosoagoa du eta natu-  
ratik aldetzen doa. «Familia  
aunitzek bere kosmobisioa  
ulertzen dute. Batzuetan me-  
zara joaten dira, baina *milpa*  
[artoaren uzta] errespetatzen  
dute».

Alkatetzan, gatazkak kon-  
pontzen ditu. Kasuak lantzen  
ditu justiziaren sistema maia  
aplikatuz. «Jendeak salaketa  
jartzen du, batzuetan, *milpa*  
bati eraso diotelako. Badira in-  
posatu diren bertze erlijio ba-  
tzuk, baina ez dira balio eta  
printzipioak galdu. Ura balora-  
tzen dute; erritu maia bat egi-  
ten da beti uraren jaiotza  
agurtzeko. Elikadura manten-  
tzen da, hizkuntza, jantziak...  
Badira jatorrizko elementuak  
bizitzen direnak», kontatu du.

### Justizia sistema maia

Gatazkak konpontzeko justizia  
sistema maia nolakoa den gal-  
detu diogu. «Egia bilatzen du-  
gu, bertze sisteman bezala  
errudunak bilatu orde. Kaltea  
konpontzea bilatzen dugu, zi-  
gorraren partez. Harmonia bi-  
latzen dugu, gatazka ulertzea,  
zergatik sortzen den, eta mi-  
nak sendatzea ere bai. Umeak  
ere barne hartzen ditugu mi-  
nak sendatze horretan. Elka-  
rrizketan oinarritzen gara,  
adostasunean, akordioetan, bi-  
tartekaritzan».

«Salaketa bat jaso orduko  
hasten gara aztertzen eta ez  
gara gelditzen amaitu arte.  
Eguneko 24 orduetan egiten  
dugu lan. Asanbladaren bidez  
egiten dugu. Kasua larria bada,  
komunitate guztiak parte har-  
tzen du erabakietan. Kasu ari-  
nagoak guk hartzen ditugu  
pribatuan», azaldu du Sebas-  
tiana Parrek.



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA | FOKU

**PROFILA** Gida  
espiritual bezala eskertze  
eta eskaintzak egiten ditu  
Sebastiana Parrek, eta  
jendeari osatzen  
laguntzen dio. Horrez  
gain, alkatetzan gatazkak  
konpontzen ditu  
**justiziaren sistema  
maia** aplikatuz.



Nabarmendu duenez, bera bi-  
zi den departamentuan alkate-  
tza indigenak lan ona egin du.  
Bidea ireki dute eta elkarrizketa  
hasi justizia organismoarekin,  
lan egiten utz diezaieten. «Arra-  
zismoa eta diskriminazioa dire-  
la-eta, pentsatzen dute komuni-  
tateetako alkateok soilik gatazka  
txikiak konpontzeko garelako gai,  
baina hilketa eta estortsio ka-  
suak ere konpondu ditu depar-  
tamentuko alkatetzak».

### Gidariaren adibidea

Kaltea konpontzen dute, edo,  
ezin bada, kalte-ordain bat  
ezartzen dute. Adibidez, behin  
gidari batek gizon bat harrapa-  
tu zuen eta gizon hori hil egin  
zen. Polizia etorri zen, gidaria  
atxilotu zuen eta espetxera  
eraman behar zuen. Baina ko-

munitateak alkatetza indige-  
nari deitu zion eta honek ka-  
sua ardura hartu zuen.

«Poliziak ez zuen kasua utzi  
nahi, ez zela indigenen esku-  
mena zioen, baina komunita-  
teak asanblada egin zuen hil-  
dakoaren familiarekin eta  
aukerak aztertzen hasi ziren:  
gidaria kartzelara joaten bada  
lana galduko du. Hala bere fa-  
miliak galduko du eta zendu-  
takoaren sendiak ere bai».

«Ezin da bizitza bat itzuli,  
baina bai kalte-ordain bat eza-  
rri edo bizitzari lotutako neu-  
rri bat bilatu, ditugun beharrei  
erantzunen diena –azaldu du  
Sebastiana Parrek–. Gidariak  
lanean jarraitzea eta irabazita-  
ko diruaren zati bat hildakoa-  
ren sendiari ematea adostu ge-  
nuen. Hileta ordaintzea ere

bai. Hala, gidariak bere fami-  
liaren elikatzeko, osasunerako  
eta heziketarako eskubideak  
betetzen ditu, baita hildakoa-  
ren familiarenak ere».

Alkatetza indigenak kontro-  
latzen du gidaria. Honek kon-  
promiso bat sinatzen du hila-  
betero hildakoaren familiari  
ordainduko diola erranez,  
umek 18 urte bete arte.

«Bertze aukera gizona kar-  
telara joan, isun bat ordaindu  
[epailearen eta Ministerio Pu-  
blikoaren mesedetan] eta ibil-  
gailua kentzea zen. Hala, bera  
gaizki geldituko zen, eta bi fa-  
milia babesik gabe utziko li-  
tuzkete. Ez zen inolako kalte-  
ordainik izanen».

Beraz, 169 hitzarmenari hel-  
duta, adostasunaren bidetik  
konpondu zuten gatazka.



Bob EDMÉ

## IKUSMIRA

# EURIA MAITATZEA

Blaitu zaizkigu oinak, euriak kolpekatu digu aurpegia eta bat-batean udazkena jantzi behar izan dugu. Eguraldiaren iragarpenak euria agintzen du datozen egun luzeetarako eta batzuk eguraldiaren telebistako aurkezlearekin haserretu dira sofa ertzetik. Asmatzen ez dutenean asmatzen ez dutelako eta asmatzen dutenean... Baina denak ez dira haserre edo suminkor euriak agintzen duenean; euriak ere baditu maitaleak. Pluviofilia deitzen zaio euria maitatzeko joerari. Eta “filia” amaiera izanagatik, ez da gaixotasun bat, zaletasun bat baizik. Euriaren maitaleek gertakari ederra eta gozagarria dela sentitzen dute eta gozatu egiten dute euriarekin. Euria ari duenean leihora gerturatu zaleak dira; euri tantei begira liluratuta geratzen dira, zein handiago, zein lehenago... Gainera, zeru grisa eta lainotsua maite dute, ederra ikusten dute. Gusturago sentitzen dira eguzkia ezkutuan dagoenean. Euria maite dutenek gozatu egiten dute euripean jarrita, busti-busti egon arte, zeharo zopatuta. Gustuko dute euria gorputzean sentitzea tarte batez. Horientzat plazera da euriaren soinua entzutea. Etxean eta gozo daudela, kanpoan euria sumatzen dutenean, babes-tuta eta bakean sentitzen dira. Eta maite dute, era berean, euriaren usaina. Batez ere, euria egin eta gero zabaltzen den hori. Tira, akaso euria behatzen, sentitzen, entzuten eta usaintzen egotearen plazera probatzeko modukoa da. Izango omen da horretarako tarteak. Amagoia Mujika Telleria

*ireki gure leihua*



**GAUR8**



## > Xua gurasoekin etxera



Gorka RUBIO / FOKU



“Xua gurasoekin etxera!” herri-ekimenaren kantu-bideoklipa aurkeztu dute eta Internet bidezko sinadura bilketari ekin

zaio. Xua Valentziako Picassent espetxean jaio zen eta datorren urtarrean beteko ditu hiru urte. Olatz Lasagabaster eta Patxi

Uranga euskal preso politikoen alaba da. Gurasoek aurtengo ekainean bete dituzte 10 urte kartzelan. 12 urteko zigorraren

hiru laurdenak ondo beteta dituzte, beraz. Espainiar legediaren arabera, baldintzapean aske beharko lukete. Hiruren etxeratzeari eskatzen du “Xua gurasoekin etxera” herri ekimenak.

Duela egun batzuk Orioko eta Usurbilgo udalek aho batez egin dute bat ekimen horrekin. «Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren eta, batez ere, urtarrean 3 urte egitean gurasoengandik bananduko duten euren alaba Xuaren egoera kontuan hartuta, ondorengo mozioa babesten du: dagokien autoritatei eskatzea behar dituzten neurriak har ditzatela, legedia kontuan hartuz, ahal bezainbeste bermatzeko adin txikikoa eta bere gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna»; horixe da egin duten eskakizuna.



## > Pegatina gorri-horiak

Vox alderdiak Gipuzkoan duen buruak, Juan de Dios Davilak, joan den asteburu euritsua errepideko seinaleetan pegatina gorri-horiak jartzen pasatu du. Bere balentriak erakusten dituen bideoak zabaldu ditu sarean eta Whatsapp taldeetan ere eman dute zeresana; harri-duraren eta barreguraren arteko aipamenak gehienak.



Gipuzkoako politikagintzan aspaldiko ezaguna da Juan de Dios Davila, Hernaniko zinegotzia izan baitzen 2003 eta 2007 urte bitartean. Orain Voxeko burua da eta espainoltasuna aldarrikatzera bideratu ditu indarrak. Oiartzungo 36 «patriotak» eta Hernaniko 108ak izan ditu gogoan, beraien aldeko botoa eman zutenak, hain justu.



## > Elkartasun argiak

Euskal Herriko hainbat txokotan egiten ari diren bezala, Mutrikun ere Kataluniarekin eta Altsasuko gazteekin bat egin eta elkartasun argiak piztu dituzte duela egun batzuk.

Babes dikean egin zuten grabaketa mutrikuarrek joan den ostegunean, urriaren azken egunean. Gure Esku Dagok deituta, ehunka herritar bildu ziren Kataluniari eta Altsasuko gazteei elkartasuna helarazteko, Auzite-



gi Gorenaren epaien ondoren. Argi, ikurrina eta bandera katalanak eskutan, irudi ederra utzi zuten. Elkartasun ekimenaren seinale ederra den bideoa sarean ikus daiteke. Bertan, irudi eta musika ederrak nahastuta, «erreferenduma ez dela delitua» salatzen dute mutrikuarrek, guztia irribarre bat ahoan eta umore onenarekin. Elkartasunaren doinuak eta koloreak.

## > «Ez, eskerrik asko», Gladys del Estalen ibilbidea

«Laurogeiko hamarkada hasieran mugimendu antinuklearra puri-purian zegoen nazioartean, baita Euskal Herrian ere. Kostaldean eraikitzeko asmoan ziren hiru zentralak gain, Arguedasen laugarren bat egiteko asmoa zuten. Horren aurka protestatzeko, mobilizazioak antolatu ziren Tuteran, eta manifestazio baketsu batean Guardia Zibilaren tiro batek Gladys del Estal Ferreño hil zuen. Film honek, Gladysen gertakariaren harira, garaiko gizartearen



onespena lortu zuen mugimendu sozialaren erretratu bat egin nahi du». Horrela azaldu dute «Ez, eskerrik asko» dokumentalaren egileek beren lana.

Bi asmo ditu filmak, Gladys del Estal eta orduko gertakariak gogoraraztea eta Euskal Herrian eta munduan 70 eta 80ko hamarkadetan zentral nuklearrak ezartzearen kontra izandako erresistentzia mugimenduaren berri ematea. Bilboko Zinebi festibalean egin dute aurrestreinaldia.



## > «Bon soire. Monsieur Cubillo?»

Andoni Lubakik bere blogean Antonio Cubillo MPAIAC Kanaria Uharteetako Autodeterminazio eta Independentziarako Mugimenduko liderraren hilketak gogora ekarri du, eta hilketaren ikerketa eta epaiketa.

Cubillo 1978ko apirilaren 5ean hil zuten Aljerren, La Voz de Canarias Libre irratiaren egoitzaren atarian. FRAPe



bi militante atxilotu eta epaitu zituzten hilketa harengatik, polizia espainol baten mehatxuen agindupean egin zutela aitortuta. Polizia hark, Jose Luis Espinosa Pardok, Rodolfo Martin Villaren aginduetara lan egiten zuten, eta epaiketan Conesa komisarioaren izena agertu zen behin baino gehiagotan.



Marco Bianchi eta Jon Rey, jatetxeko bazter batean. Jaizki FONTANEDA | FOKU

# infraganti MUSEO DEL ORGANO JATETXEA

Ez da museoa, jatetxea baizik. Izenak bertako jarduerarekin zerikusirik izan gabe hasi zen duela hiru hamarkada, eta bazkide berriek izenari eutsi diote izanari eutsi nahi diotelako. Betiko jatetxe begetarianoa da, baina aldaketa interesgarriak egin dituzte. Bi apustu: jatetxea hornitzen duten ekoizleak nabarmentzea eta euskararen erabilera.

**G**asteizko Manuel Iradier kalean Euskal Herriko lehenbiziko jatetxe begetarianoetako bat zabaldu zuten 1987an. Hiru hamarkada igaro-

ta, haren jabeak, jatetxea uzteko garaia iritsita, euren filosofiari jarraituko zion norbaiten bila zebiltzala, Diego Apellaniz, Marco Bianchi eta Jon Rey agertu ziren. Gaur egun Museo del Organo jatetxeko bazkide berriak dira, lokala zerbait aldatu

eta eguneratuta, «2020. urtera eramateko asmoz». Hilabetetsu baino ez du jatetxeak zabalik eta gutxienik lehen bezain ondo funtzionatzen duela ikusi dute. Baita ondo funtzionatzeko gogotik lan egin beharra dagoela ere.

Lehen bezala, beraz, elikadura eta bizimodu osasungarria aldarrikatu, sustatu eta eskaintzen dute arduradun berriek, eta jatetxearen «esentzia» kontserbatzen duen seinale, izen berarekin jarraitzea erabaki zuten. Baina zergatik Museo del Organo? Galdera bera egin zuten hiru bazkideek. Lokal horretan antigoaleko gauzak saltzen ziren aspaldi; ondoren organo denda eta tailer bat jarri zuten, pianoak konpondu eta afinatzen zituzten, eta duela 32 urte jatetxea zabaldu zutenean, jabeek ez zuten errotulu berriarik jartzeko dirua, eta bere horretan utzi zuten oraintsu arte.

Izen berarekin baina haren diseinua aldatuta eta lokala txukundu ondoren, berrinauguratu egin zuten Diego, Marco eta Jonek. Bertan hartu dute GAUR8. Marcok esertzera gonbidatu gaitu, berehala antzematen zaion italiar doinu; hala ere, harrigarriago gertatzen da egiten duen euskara zuzen eta egoki askoa, duela 17 urte Gasteizera etorri zenetik ikasia. Azaldu duenez, Diegok Artium Museoan lan egiten du, komunikazio eta marketin arloan, eta lan bertsua egiten du jatetxean, normalean bertatik kanpo. Aspaldiko lagunak dira Diego eta bera, herri mugimenduan elkarrekin ibiliak. Marco kimikaria da, eta Miñaoko Parke Teknologikoan ingurumenaren inguruko ikerketa proiektuak kudeatzen lan egiten zuenean, Jon ezagutu zuen, master bat amaitzera joan eta hantxe jarraitu baitzuen lanean.

Jatetxea hartu arte ezer gutxi zekiten ostalaritzaz. Marcok dioenez, ez da erraza, «kanpotik ikusita hala eman lezakeen arren». Jatetxearen eskualdatzea egin baino lehen asko hitz egin zuten aurreko bazkideekin, sukaldaritzaz eta jatetxea kudeatzeko moduz. Edonola ere, eurak zeregin horretan berriak badira ere, sukaldean aurreko lantaldeak jarraitzen du, eta haiekin lanean aurreko jabeetako bat ere badago. Hartara, bost langile eta hiru bazkide dira.

Jatetxeak ondo funtzionatu du beti, eta haren filosofiari eusteko asmoa zutenez, aldaketa gutxi egin beharra zeukaten; lokalari dagokionez, dekorazioa, eta menuei dagokienez, funtsean berdintsu jarraitu dute: menu erdia, osoa eta jate-txearen «arima» izan den entsalada buffeta, besteak beste.

## HORNITZAILEAK AGERIKO

Museo del Organo jatetxeak zer du berritik, horrenbestez? Alde batetik, plateren itxura. Apainduago ateratzen dira mahaira, eta zapore berriak, «ausartagoak» sartzen hasi dira, lehengo oinarritik abiatuta, eta jatetxe begetarianoa bada ere, plateren ehuneko handia beganoa da.

Baina gazte hauen apusturik handiena hornitzaileekikoa da. Jatetxe horrek beti egin du ekologikoaren aldeko apustua ahal zuen neurrian, alderdi ekonomikoa eta egin beharreko esfortzua kontuan izanda. Jon, Diego eta Marcok, berriz, %100 ekologikoa eta kilometro 0 sukalde izatea erabaki zuten. Arabako Bionekazaritzako ekoizleekin proiektu bat abiatu dute eta Museo del Organo elkarrekin horretako lehen jatetxe bazkidea da. «Kontrako bidean» funtzionatzen dutela dio Marcok. Astero baratzetan zer



Jon Rey eta Marco Bianchi, eguerdiko otordurako mahaiak atontzen. Jaizki FONTANEDA | FOKU

dagoen esaten die elkartek eta horren arabera prestatzen dituzte menuak, egunero aldatzen dituztenak. Arratsaldero zehazten dute menua, hornitzaileek eta eurek daukatena kontuan izanda. Produktuak tokikoak eta sasoikoak dira, jakina: barazki guztiak, Arabakoak; fruta, berriz, Nafarroakoa, eta edarien karta Villabuenako hiru ardok, Aramaioko sagardoak eta Urkabustaizko Baiasgaragardoak osatzen dute.

Komunikazio arloan ere ekoizleak agerikoagoak izateko ahalegina egiten ari dira. Hone-la azaldu du Marcok: «Ez da nahikoa esatea platera bikain dagoela, oso dotore jarrita eta zapore ona duela. Horren atzean badago lurra lantzen duen emakume bat, mutil bat... eta horren garrantzia nabarmendu

beharra dago». Hilero produktu bat eta ekoizle bat aukeratzeko, kartan produktuen izena ez ezik, ekoizlearena ere agertuta.

Eguerdian zabaltzen dute, ordu bate-tik lauretara, eta beste zerbitzu bat abiatu berri dute, «Bakarrik zuretzat» izeneko, lagun taldeei jatetxe osoa erreserbatu eta, ateak itxita, bi menu berezi dasta ditzaten.

Bestetik, badituzte bezeroentzako zenbait eskaintza, hala nola hamar egunetako menu bakoitzean euro bat aurrezteko

**Jatetxe horrek beti egin du ekologikoaren aldeko apustua, ahal zuen neurrian. Jonek, Diegok eta Marcok, berriz, %100 ekologikoa eta kilometro 0 sukალdea izatea erabaki zuten**

**Arratsaldero zehazten dute menua, hornitzaileek eta eurek daukatena kontuan izanda. Produktuak tokikoak eta sasoikoak dira, jakina: barazki guztiak, Arabakoak; fruta, berriz, Nafarroakoa**

txartel bat, «Gozatu» izeneko, edo «Ohitu» txartela, gehienbat jatetxera oso maiz joaten diren inguruko langileentzat pentsatuta; menu erdia bazkaltzera

joan ohi dira eta bonu horrekin, bederatzi egunetan bazkaldu ondoren, doan ematen diete hamar garren bazkaria. Halaber, oparitzeko txartel bat ere badute eskuragarri.

**EUSKARA, LEHENTASUN**

Hiru bazkideen beste apustu handia euskara da. Aurreko 32 urteetan jatetxean euskarak ez

du presentziarik izan, eta orain presentzia ez ezik, lehentasuna ere badu. Hiruren artean euskaraz egiten dute beti, eta sukaldeko gehienek ere badakite edo ulertzen dute. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Bidean maila lortu dute dagoeneko. Sare sozialetan ere euskara erabiltzen dute, gaztelaniarekin batera, jatetxearen gaineko kontu guztien berri emateko: ekoizleerik harremana, eguneroko menuak... eta hilabeteen, ehunka jarraitzaile lortu dituzte, Instagramen bereziki.

«Ez genuen sorpresa handirik espero, baina espero genuen baino sorpresa handiagoa izan da», dio Marcok, pozik. Egunero betetzen dute jantokia eta erreserba asko izaten dituzte. Jende gehiago sartzeko aukera ere badute, «baina ez dugu hau Burger King bat bihurtu nahi. Logikoki, kopuru bat aukeratu behar da kontuak ateratzeko, baina kopuru hori hiruzpalau ordutan banatzeko jokatzeko ari gara, jendea hemen gustura eta lasai egoteko, musika ona entzuten eta lokalaz ere gozatzeko». Kalitatea ematen saiatzen dira, bezeroak pozik joan eta berriro itzultzeko eta lagunei gustura egon direla kontatzeko. Eta badira behin eta berriro joaten direnak, baita aurreko etapako bezeroak ere, aldaketa hauekin oso pozik daudenak. Ez da jatetxe garestia, eta horrela jarraitzeko apustua egin dute: «Jendea hemen jatetxe 'on' -alegia, garesti- batean bezala egoteko, baina prezio normal batean».

Ez direla enpresaburuak dio Marcok, eta ez dutela «pelotazorik» nahi. «Gauzak egiteko beste modu batean sinesten dugu». •

Xabier Izaga Gonzalez



**Itsaso Rodriguez**

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko ikertzailea

## Roboten erabilera Fukushimako istripu nuklearrean

**G**aur egun robotak nonahi ikusten ditugu, adibidez, industrian lan mekanikoak gauzatzen, etxean garbiketa lanak egiten eta denbora-pasatzeko jostailu robotikoak ere badaude. Hala ere, artikulu honetan, roboten erabilera zehatz bat jorratuko dugu: Fukushimako istripu nuklearrean robotek eskainitako laguntzari buruz hitz egingo dugu.

2011ko martxoaren 11n, 9,0 magnitudeko lurrikara bat gertatu zen Japonian eta seismoak 16.000 pertsona inguru hil zituzten tsunamiak eragin zituen.

Aldi berean, Fukushimako zentral nuklearrak kalteak jasan zituen, 12 errektore hondatuz. Hondamendiaren ondorioz, 165.000 pertsona inguru hiritik atera behar izan zituzten erradiazioarengatik eta gaur egun, oraindik ere, badago jendea etxera bueltatu ahal izan ez duena.

Lurrikararen ondorengo egunetan langile batzuek errektoreen inguruan lan egin zuten, denbora tarte txiki batez eta zonalde konkretu batzuetan, beraien bizitzak arrisku larrian jarritz. Errektoreen eraikinaren perimetroaren inguruan neurtutako erradiazio maila altuen ondorioz ezinezkoa zen kaltetutako guneetara segurtasunez hurbiltzea, eta, hortaz, eraikinaren barruko egoera ezezaguna zen. Beraz, nola sartu zentralera eta barruko informazioa eskuratu? Robotak izan ziren galdera horien erantzuna.

Baina edozein robotek ezin du horrelako gune batera sartu, robot askok ez dutelako erradiazio maila altu horien aurkako babesik. Hala eta guztiz ere, robot asko izan dira al-daketak jasan dituztenak istripuaren ondoren plantan sartzeko asmoz. Robotok hondakinak iragazteko, erradioaktibitate mailak neurtzeko edota zuzeneko bideoak transmititzeko erabili dira.

**Japonia roboten arloan oso aurreratuta dagoen herrialdea izan arren, garai hartan ez zuen horrelako istripu bati aurre egiteko moduko robotik. Errektoreen eraiki-**



Fukushiman sartzen lehena Packbot izeneko robota izan zen. GAUR8

nean sartzen lehena iRobot-ek garatutako Packbot robota izan zen. Packbot inguruko oxigeno maila, tenperatura, gamma erradiazioa eta material eta produktu kimiko arriskutsuak detektatzeko sentsoreez hornituta zegoen. Ondoren, eskailerak igo eta jaitsi eta 90 kilogramo altxa zitzakeen Warrior robota erabili zuten errektoreen eraikinean oztopoak kentzeko. Quince izan zen Fukushima sartu zen lehen robot japoniarra; zaborra mugitzeko edota atea irekitzeko beso robotiko bat zeukan. Hala ere, ez zegoen

erradiazio maila altuak jasateko prestatuta eta ahal bezala moldatu zuten zentrala esploratu eta laginak jasotzeko. Misioa bukatu baino lehen, komunikazio-kablearekin arazo bat egon zen eta ezin izan zuten berarekin konexioa berreskuratu. Garbiketa lanak gauzatzeko robotak ere sartu dira zentraleran, adibidez, ATOX-ek garatutako Raccoon xurgagailu robota. Hondak ere High-access Investigation Robot izenekoak garatu zuen, bere besoari esker zonalde altuetara iristeko gai zena. Aipatu robota garatzeko Hondak bere ASI-MO robot humanoidearen mugimendu sistemak erabili zituen. Urteotan erabilitako beste robotetako batzuk Hitachik garatutako robot igerilariak eta igokariak izan dira. Aldi berean lan egiten dute bi robotok, eta, izenek dioten bezala, bat urperagarria da eta bestea paretak igotzeko gai. Robot bikote horrekin lortutako irudiei esker, ultrasoinuak erabiliz, egiturazko kalteak baztertu ahal izan zituzten.

2011tik robot mota desberdin asko erabili dira Fukushimako zentral nuklearreko istripuan. Gaur egun, zentralera sartzen diren robotek bertan "hiltzen" jarraitzen dute, barruan oraindik dagoen erradiazio maila altuarengatik. Hori bai, Fukushima garbitzeko oraindik ere urte asko behar izango diren arren, hondamendi-naturala gertatu zenetik asko aurreratu da. Etorkizunean roboten arloan zer-nolako aurrerapena ematen den ikusi beharko dugu misioa noiz bukatuko den jakiteko. •

# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



BILBAO.—S 905.—Grupo de vizcainos

J. LAURENT. IPCE ESPAINIAKO KULTURA ONDAREAREN INSTITUTUKO FOTOTEKA

## TUTERA-BILBO TRENBIDEKO LANGILEAK ATSEDEN HARTZEN, 1865EAN

Jean Laurent 1816an sortu zen Frantziako Nevers herrian eta 1892an hil zen Madrilan. Egin zuen obra XIX. mendearen bigarren erdikoa da eta mende horretako funts dokumental grafikorik garrantzitsuenetakoa dela esan liteke. Bere argazkietan dokumentatuta agertzen diren eraikin, obra edo materialetako batzuk desagertu egin dira dagoeneko, haietako zenbait XIX. eta XX. mendeetako gerretan suntsituta. Laurentek kolodioi hezea, dagerrotipoak, kalotipoak, irudi estereoskopikoak eta beste teknika batzuk landu zituen, eta bere obra mugagabea dela esan daiteke. Monumentuen, kaleen eta herri eta hirien bista orokorren argazkiak egin zituen, baita tren geltokietako trenbideenak ere. Artikulua ilustratzen duen argazki estereoskopikoa Bilbon egina da, 1865ean. Tuter-Bilbo trenbidea Laurentek dokumentatu zuen argazkiz, eta irudian trenbide hori egiten ari den langile talde bat atsedean hartzen ageri da; antza denez, hamaiketako egiten. Jatorrizko negatibotik ateratako argazki honetan, argazkilariak marra batzuen bidez markatu zuen merkaturatuko zuen irudiaren ebakina.

GAUR8



*ireki gure leihoa*

